

## Espainiako Eskalada Kopako hirugarren proba irabazi dau Zabalak

10. orrialdea

## Azaro Musikala Artean

Aurrera doa zemendia eta Zezili Deuna egunera hurreratu ahala, musikeagazko hitzorduak ugartzen doaz. Artean Azaro Musikalaren programazioagaz jarraituko dabe, abesbatzak eta pop-rock taldeen emonaldiakaz, hain zuzen be.

Luis Iruarrizaga Abesbatzak, zemendiaren 17an Artean eta hurrengo egunean Igorren eskeiniko ditu kontzertuak. 13. orrialdea



## Feten Saria jasotako Euría ikuskizuna Lasarte Aretoan hilaren 17an

13. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 284

2017ko zemendiaren 16a  
hamabostekaria  
www.begitu.org



## Igorreko Gaztetxearen alde manifestazinoa egin dabe

Hirurehun lagun inguruk agertu gura izan eutseen babesia Igorreko Kiñu Gaztetxeoai zemendiaren 11n, Gaztetxeo sarrailak aldatuta topau ebezanean. Gazte Asanbladeak, "legitimidade eta legalidade osoz" dagozala han dino eta programautako jarduerakaz jarraituko dabela. Hilaren 18an, IV. Rockupa Fest jaia ospatuko dabe eta bertso-bazkaria eta kontzertuak antolatu ditue egun horretarako. 7. orrialdea



## Indarkeria sexistearen kontrako mobilizazinoak

Urtero lez, zemendiaren 25aren inguruan, Arratiako talde feministak, andra taldeak, Udalak eta Mankomunida-

deak, hainbat ekintza antolatu ditue indarkeria sexistearen gainean gizartea sensibilizau eta mobilizau daiten. 8. eta 9. orrialdeak

### DIMA

## Herri galdeketearen urteurrena ospatuko dabe

Alkarregaz Gure Esku Dago Dimako taldeak, herri galdeketearen lehenengo urteurrena ospatuteko eta aurrerantzean egin beharrekoaren gainean hausnartuteko, mahai-ingurua, mintegiak eta jaia antolatu ditu hilaren 24 eta 25erako. Herri eta alkarteai herri itunerako proposamena zuzenduko deutse Alkarregaz taldeak. Izan be, 2016ko zemendiaren 27ko herri galdeketean, 16 urtetik gorako dimoztarren %63,22k hartu eben parte eta horreetako %95,3k estatu burujabe bateko herritarrak izan gura ebela adierazo eben.

Herri bazkariak, musikeak, dispositibak, argazkiak, jantzak, antzerkiak, bingoak eta kantu poteoak osotuko dabe jaia. 6. orrialdea

### AREATZA

## Dagigun alkarteak antolatutako galdeketa %45eko partaidetzea

Zemendiaren 5ean herri galdeketea antolatu eban Areatzan erabakitzeko eskubidearen aldeko Gure Esku Dagoko Dagigun alkarteak. Deitutakoen %45,35ek hartu eben parte eta horreetako %90,28 euskal estatu burujabe bateko herritarrak izatearen alde agertu ziran. Ezezko botoa %5,83k emon eben, boto-papel zuria %1,08k sartu eban hautestontzian eta balio ez dauan botoa %2,81ek emon eben. Antolatzaileak pozik agertu dira izandako parte hartzeagaz. 5. orrialdea



### AREATZA

## Areatzako 2018ko aurrekontuak oso kontuan izango ditue gazteak

Zemendiaren 29an batuko da Udala herritarrakaz batzar baten aurrekontuetarako ekarpenak jasoteko. Gazteakaz be batzartuko dira udal ordezkariak eta buzoi eta posta elektronikoaren bitartez be, heldu ahal izango deutesie billaroztarrak euren eretxi eta iradokizunak Udalarari 2018ko aurrekontuak egiteko. Aurreko urteetan hasitako proiektuak, gazteentzako espazioak eta turismo plana be aurrera atera gura dabez datorren urtean. 7. orrialdea





# ARRATIA KOLOREETAN

## ARTEAKO KIROL KULTUR ETA EUSKARA TALDEA, AKKT

Arteako Kirol Kultur eta Euskara Taldeak historia luzea dauka. Izan be, oin hogeit urte baino gehiagoko sortu zan, 1994an. Errelebo faltea zala eta, urte batzuk desagertuta egon bazan be, birsortu egin zan indarrez orain dala zazpi urte, eta gaur egun ia 200 bazkide ditu.

Arteako herrian betidanik egon da kirol eta kultura jorratzeko ekimena: musikariak, idazleak, kirolariak eta abar. Gainera, asko maila gorenetan jardundakoak izan dira, baina honen maila altuan ibiltzen ez diranak be, kirola edota kultur ekintzakaz gozatuten dabela ikusita, alkartea berreskuratzea ebatzi genduan hainbat arteaztarrek, aisialdian egiteko

ekintzak antolatzeko.

Ekintza guztiak euskeraz egiten dirana lez, izenean euskera agertutea gura izan genduan AKKTko kideok eta gaur egun Arteako Kirol, Kultur eta Euskara Taldea izena dauka alkarreak.

Urte osoan zehar antolatuten doguz ekintzak herrian. Azaro Musikalean eta Inauterietan parte hartzean dogu, Gabonetan Gabon Kanta eta Orientazio lasterketa antolatuten dogu, eta abar. Baita antxinako tradizioak berreskuratze asmoz, Kanporamartxo eta beste ekintza batzuk be.

Kirolari jagokonean, batez be eski urtekerak eta mendi martxak antolatuten dira urtero. Arrakas-

tatsuen akaso, Auzorik Auzo. Martxa hone helburua Arteako auzoak ezetuten emotea da eta jentek sano ondo pasetan dau mendi ibilbidea egiten eta ondorengo kopauagaz. Hori dala eta martxak 21 urte bete ditu, XXI. edizinoa aurten bagilaren 25ean izan zan.

Beste kirol ekintza puntualak be antolatuten doguz AKKTkoak.

AKKTk antolatuko dituan hurrengo ekimenak Gabonetan izango dira. Gaueko orientazio familiarra herrian zehar, herritik gaubez beste modu baten ibili eta ezetuteko. Ondoren txitxi-burrunzti gozo-gozoa eta txokolata egoten da, eta gauari amaierara emoteko Gabon Kantak plazan.



Gabonetako abesti tradizionalak kantetan doguz AKKTko kideak gainontzeko herritarraz batera,

Gabon giro ederrean.  
**Arteako Kirol Kultur eta Euskara Taldea**

**TELEFONO INTERESGARRIAK**

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**09:00etatik 22:00etara**  
**Zemendiaren 13tik 19ra**

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18

**22:00etatik 09:00etara**

Melero. Amorebieta-Etxano.

**Zemendiaren 20tik 26ra**

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

**22:00etatik 09:00etara**

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

**Zemendiaren 27tik abenduaren 3ra**

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33

Tel.: 94 673 70 54

**22:00etatik 09:00etara**

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**

**22:00etatik 09:00etara**

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 38 50 14

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea** 94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Euskotren** 902 543 210

**Areatzako Notarioratza**

94 673 92 26

**Bizkaibus 94 612 55 55**

**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri**

**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio-Artea**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ermitabarri-Arriorriaga**

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arriorriaga-Ermitabarri**

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union 94 427 11 11**

**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

**Babesleak:**



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** begitu@topagunea.com

**Webgunea:** www.begitu.org

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarizaga.

**Erredakzio burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzio taldea:** Rakek Aldekoa Diez eta Ainhoa Duñabeitia.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

**Publizitatea:** Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Roxana Constantin (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta, Xabier Beitia, Marta Rodriguez eta Rut Rodriguez (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Jabí Peribañez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

**Tiradea:** 7.200 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

## ZEURE BERBEA

### Zorionak eta eskerrik asko Areatza!

Zemendiaren 5ean billaroztarrok erabakitze aukerea izan genduan "Euskal estatu burujabe baten hirritarra izan gure duzu?" itaunari erantzunez. Areatzan errolatu eta 16 urte baino gehiagoko botoa emoteko eta galdereari erantzuteko eskubidea euki eben. Guztira 1.021 persona. Horreetatik 463k botoa emon genduan, %45,35a, eta gehiengoak, %90,28a, baietz erantzun eban. Jakin badakigu ez daukala balio loteslerik baina horregaitik be, instituzioetako laguntza barik, komunikabide handien oihartzunik barik, artisautza eta eskulanetako bitarteko eta tresnakaz, tamaina horretako parte hartzea lortzea parebako garrantzia daukala uste dogu.

2014an, Erabakitze Eskubidearen aldeko herri dinamikea gizarteratu zanean, borondate eta sensibilitate desbardinak batzeako gunea gauzatu gura izan genduan Areatzan. Gorabeherak izan doguz, batzuetan kanpoko egoereak eta gertakizunak lagundu daben arren, beste batzuetan ahaleginak zapuztu egin dabez. Zoritxarrez, mesfidantza eta aurrereti asko gairiditze dogu! Horregaitik, datuak aztertze orduan, Dagigun Areatza Elkartearen ugaritasuna eta bere kideak borondate eta sensibilitate desbardinaren arteko saretxoa josteko egin daben ahalegin berezia balioan jarri behar dogu. Konsultan

bertan, mahaikide gisa, jarraipen batzarkide gisa, bermeen batzarkide moduan edo antolatze lanetan parte hartze zuzena izan dauan jentearen lana eta inplikazioa dago eta alkarren arteko lana posiblea dala erakusten dau. Erabakitze gaitasuna eta ahalmena proiektu politiko eta eretxien gainetik dagoan oinarritzko eskubidea da. Neurri baten, datuak bezain garrantzitsu, prozesuan alkatu doguzan borondateak izan dira.

Herri galdeketea Prozesu baten urratsa baino ez da. Erabakitze eskubidea egunero eta gai guztien inguruan gauzatu behar da; hau da, jentearen bizitzaren etorkizuneko funtsak nondik bideratu eta zelan gauzatu erabakitze ahalmena gure esku ipinten dauan eskubidea. Konsultea, eskubidea normaltasunez txertatzeko adibide gisa ulertu behar dogu. Aurrera begira lan handia eta bide luzea daukagu.

Konsultea jentearen eretxia eta ebatzia era formal eta demokratikoan gauzatzea posible dala erakutsi deusku, ohikoa eta normaltasun osoz garatu daiteken prozesua dala. GEDk bultzatutako herri konsultak euskal herritarroi jagokun erabakia hartzeko aukera parebako eskeintzen deusku. Neurri baten testimonialak baino ez dira, baina horretan datza be euren balioa. Herriaren borondatearen isla dira, alkarlana posible dala erakusten dabe, indar, borondate eta eretxien metaketea posible egiten dabe eta erabakitze eskubidea gauzatzen dabe. Ez da gitxi! Zorionak eta eskerrik asko Areatza! Eta animo gorre! zuon esku dago eta.

#### AREATZAKO DAGINGUN ALKARTEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, begiruk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [beginu@topagunea.com](mailto:beginu@topagunea.com) helbidera.

## ERETXIA

### Gurseko esparrua gogoan

Euskal Herriko ekialdetik, Zuberoatik, hur dago Gurs herria, Biarnon. Hemendik, ordu eta erdi autoz, asko gehiagorik ez.

500 biztanle inguru ditu herriak. Paraje trankila da. Baso eder bat be badauka, hau be lasai-lasai paseoan ibilteko aproposa. Gatxa da pentsau be egitea han konzentrazino esparrua egon zala, Gurseko konzentrazino esparrua. 6.500 euskaldun izan ziran bertan, 1939an, tartean hamazortzi bat arratiar bere bai. Frantsesak esparruari "Camp des basques" esaten eutsien.

Historia iluna dauka Gursek, eta ezezaguna bere bai. Betirako zarratu ebenean, su emon eutsien barrakoi eta eraikinai, eta gainean baso oso bat landatu eben. Presoen kanponsantua, hori izan zan geratu zan bakarra. Eta hainbat hamarkadatan inork ez eban tutik be esan han jazotakoaz, bapez.

1939ko urtailean, Bartzelona tropa nazionalen esku lotu ostean, milaka personak Frantziarako bidea hartu eben, errepresino frankistearen bildur. Eskubideen eta askatasunen Frantziak, baina, gaizkileak lez tratau ebazan errefujiadu errepublikarrak, begirune barik, gordin. Rosello inguruko hondartzetan, halan edo holan, eregitako harrera gunetara bialdu ebezan lehenengo, eta Gursera, ostean.

Euskaldunak, nazioarteko brigadistak eta aireko armada errepublikarreko soldaduak hartzeako sortu zan Gurs. 42 egunean, martxan egoan. Barrakoiak ez eukien oinarritzko ekipamenturik, ez oherik, ez armairurik, ez ezer. Eta, kanpoan, dana zan lupetza, orkatilara arte, bertan egondakoak kontetan dabenez. Janari gitxi eta eskasa, eta beti jagoleen begirada-pean.

Euskal Herri osoko jentea batu eben han, bizkaitarrak gehienak, arratiarrak be tartean: Basilio Aba-



### NAGORE FERREIRA ZAMALLOA

Kazetaria

solo Ibarrondo, Pedro Aretxebala Larrañaga, Hilario Gurtubai Atutegi eta Cosme Zalduegi Ibañez, Lemoakoak; Genaro Iturriotz Gurtubai, Andres Orue Arteaga eta Pedro Sagasti Elorriaga, Igoerrekoak; Antolin Agirre Etxebarria, Modesto Agirregabiria Benito eta Ramon Anido Murua, Zebe-

riokoak; Eugenio Lejarza Beobide, Jose Maria Lejarza Beobide eta Narciso Ortuzar Agirregoikoa, Zeanurikoak; Juan Francisco Barrietabeña Petralanda eta Benjamin Irigoien Gutierrez, Areatzakoak; Aquilino Gorospe Aldai eta Blas Legarreta Barrenetxea, Dimakoak; eta Celestino Bedia Bedia, Bediakoak. Honeek dira artxibategietan ikertzaileak topatukoak, baina gehiago be izango ziran seguruenik.

Frantziak ez ebazan han gura euskaldunak. Eta batzuk mugaz bestaldera bueltatu arazo ebazan, jakitun egon arren han zer eukien zain. Batzuk iges egitea lortu eben, beste batzuk Ameriketara joateko aukerea izan eben... Urtebete eta gero, ia hutsik egoan Gurs.

Handik ez denpora askora, naziak Frantzia okupatu ebenean, II. Mundu Guduan, Gursek bigarren sasoi ezagutu eban. Atzera be, bete arte hasi zan martxan, oingoan hainbat herrialdeetako personakaz, edade guztietako ume, gizon eta andra juduak, kitanuak, eta abar. Euretako asko Gurse-tik zuzenean Auschwitzera eta Mathausenera eroan ebezan. Sasoirik ilunena ha izan eban Gursek.

Aurten be, udagoien hasikean, Eusko Jauriritzeak eta Nafarroako Gobernuak omenaldia egin deutsee Gursen egondako euskaldunai, Gernikako arbolaren kimua landatutako lekuan. Han batu ziran be Gursen egondako presoren bat eta daborduko hil diranen senitartekoak be. Eta, halan, urtean behin ezpada be, Gurseko konzentrazino esparrua berbagai izaten da komunikabideetan.

Barrakoiaren lekuan arbolak dagoz gaur egun, baina ha zer izan zan jakin gura dauanak han ditu informazino-panelak, erakusketak txiki bat eta dokumental bat ikusteko aukerea bere bai, barrakoiak zelangoak ziran jakiteko aukerea... Izan daitela testutxu hau Gursera joateko gonbidapen, geure memoriaren jaube izan gaitez, eta ez dagiguzan ahaztu han izan ziranak egundo be.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Eskutila



Solo, ortu edo lorategi bateko bedar ebagia astindu eta batuteko erabilten dan egurrezko tresnari eskutila esaten jako (eskutilla, agoskatuta). Badago baita be burrinezko buru eta hortz dituen eskutila, lurra nahastu eta bardinduteko erabilten dana. Batuan eskuare da. Honako era honeetara be jaso dogu berba hau Arratia inguruan: eskubara, eskuta, eskutaina, eskutaila, eskutile, eskuteille eta, Zeberio aldean, eskuitilla.

**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torre auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Euskal Batzuzteak

MONDRAGON



## LUMATUTEN



**PILI ÁLVAREZ  
MOLÉS**

## Arratiako neskak autodefensa feministan!

👄 Gabezidun izakiak garala esan deuskue eta bakarrik geratuko garala mamuagaz bildurtu. Baina hamaika zutabe daukaguz zutik jarraitzeko. Hamaika esku bidean aurrera egiteko, alkarrerri eutsiz eta indartuz. Osoak garalako, ederrak, txikiak, handiak, ausartak... Geu gara gure bizitzaren jabe, geu gara protagonistak eta horregaitik asmatu daigun gure istorioa, okertu gaitez, eta erori, barriz jaikitako, barriz hasteko, geure buruak berasmatzeko. Bagaralako!"

Berba honeekaz amaitu genduan Arratiako nesken auto-defensa feminista ikastaroa. Alde batetik, holango tailerrak egin behar izatea sano tristea da, atzen finean desbardintasun adierazle bat dalako. Baina bestetik, oso pozik nago 12-22 urte bitarteko 22 neska ausartu ziralako euren

burua gehiago ezetutera, beste neska batzuk bizi esperientziak konpartidutera, ahalduntzera eta alkarregaz barre egitera.

Baina Beldur Barik programearen barruan ikastaro hau eskeintzeaz gainera mutilentzako desjabeakuntzarako Clown tailerra be eskeini zan. Ezetz asmatu zenbat mutil animau ziran! Bingo, inor be ez! Arratiako mutil gazteak ez dabe ikusten euren buruak ezer landu behar dabenik ala? Zer uste dabe? Ez dabela jarkera matxistari? Bardintasunean bizi garala sinisten dabe akaso, edo agian inoz ez dabe pentsau eurak be indarkeria sexistan arduraren bat daukiela, eta arazo hori euren gendik kanpo egongo balitz moduan sentituten dira... Edozein modutan be, ikusten dabena egiten dabe, eta zoriotzarrez, ez dot uste euren inguruko gizonak sexu-genero sistemea bere egunerokotasunean zalantzan ipinten dabenik, eta ondorioz, pribilegioak landuten dituenik. Argi dago lan asko egiteko dagoala, ezta?

Andrakanako Indarkeriaren Kontrako Eguna dala eta, Arratian ekimen asko egongo dira, eta aukera bat izan daiteke lanketa hori hasi edo jarraitutea; danok daukagulako beti zerbaist ikasteko. Gitienez, espero dot zemendiaren 25ean, 12:00etan, Igorreko Kultur Etxetik abiatuko dan manifestazioan alkar ikustea, feminizidio gehiagorik ez dogula gura ozen ohiukatzeke. Gora burruka feministea!

## ZERTZEAN



**ARITZ ARRIZABALAGA**

## Olgetea

**-E** karrik txiskeroa- agindu deutso Josek. Luisek esku zarratuen hurreratu deutso eskatutakoa, baina ez ditu atzamarrak soltau. Oin artean esandako guztia bete dau. Onak iruditu jakoz Joserren ideak; apartekoak batzuk. Asko dabil ikasten Joserengandik. Hainbeste, non berak be egin dauzan ekarpen batzuk. Txalokokoak emotearena eta kordela erabilia hanka-besoak lutzutearena bere ideak izan dira.

Baina metxeroa barrero erabilteak zalantza sortzen deusaz. Ez daki lurrean etzunda dagoan beste saio bat iraungo dauan. Txiskeroa Luisen eskuan, alkarrerri begira lotu dira.

-Ez jotsek eutsiko -esan dau. Eta esaldiari amaiera emoteko-edo, paparreen katigatutako hasperen bat entzun dabe. -Hik errazoi -esan dau Josek-. Kordelagaz segidu beharko joguk.

Iribarre egin dau Luisek. Oindino ez dabelako hil; oindino olgeteak segidu egingo daualako; baina, batez be, bere proposamena kontuan hartu dalako.

Oingo aldan ez dabe sokea hain gogor lotu.

Biktmeak bizirik ahalik eta denpora gehien irautea gogortasunaren menpe dago. Hasikeran edozer eta edozelan egin dabe. Beti egiten dabe. Oin ez. Oin edozein golpe da hilteko modukoa. Eta hau da gehien gorroto daben momentua, ze etzunda dagoan hasikeran sortzean eutsien baino antoju handiagoa sortzean deutse. Begiak putzituta, odollez daukaz ia; ezpanak izerditan; mihina albo batera jausita.

Horregaitik, euren olgetea luzatu gura daben arren, hau momentua heltzean danean, metxeroagaz larregi erre edo sokatetik indar handiegiagaz tiratuten dabe.

Gaur be halan jazo da. Txiskeroagaz emon eben azkenengo golpea aurrekoan; kordelagaz gaur.

-Kaka! -esan dau Luisek-. Kabroia! Hilda jagok.

Joseri, nahiz eta sentipen bera euki eta mada-rikazino batek laban egin mihin puntatik, irribarre bat marraztu jako ezpanetan.

-Lasai. Beste txubelazo bat hartuko joguk. Soberan jauzak.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**E** hundaka igorreztarrek armariotik urteteko ebatzia hartu dabe, "Urten armariotik! Baietz 23 egun euskeraz" kanpainearen barruan.

Hizkuntza ohiturak aldatutea eta euskerara hurbildutea, hori da, hain zuzen be, euskerearen armariotik urtetea.

23 eguneko erronka da eta oindino garaiz dagoz armario barrukoak be urteteko!

Berba egiten dabenak, ulertzen dabenak, edo euskereari irribarre egiten deusienak... danak daukie lekua euskerearen unibersoan!

Erdu Kultur Etxera izena emotera! Eta urten zeu be armariotik!

**Igorreko Euskera Batzordea**



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostiscsl.com](mailto:gorosti@gorostiscsl.com)

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarribia  
Bidebarri 1. behea  
48140 Igoite-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegatu Zerbait 101  
R.P.S. 21/06

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK  
MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA  
Elexkolda, 33 D - 1º · 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel. 94 631 54 82 · 506 854 018

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENAKARI AGIRRE, 17 · IGORRE



## LEMOA

# Lan istripuak salatuteko lan-ixteak eta manifestazioa egin eben Lemoan zehazkiaren 6an

Urri bigarrenaren 31n, Lemoako Cementos Lemoa enpresan behargin bat hil zan eta beste bat larri zauritu. Lau hilabetetan, eskualdean, beharrean hildako hirugarrena izan zan Cementos Lemoakoa.



Lemoako manifestazioa.

### Erredakzioa

Garagarriean Bediako Forjas Unidas enpresan beste behargin bat hil zan, eta urrietan, Lemoako istripua baino aste bi lehenago, Zeberion beste bat, lemoaztarra berau. Cementos Lemoako istripuan zauritutako beharginak, oindino ospitalean jarraituten eban zehazkiaren 9an.

Istripuaren ostean, zehazkiaren 2an, 24 orduko greba eta, fabrikako atean, kontzentrazioa egin eben Cementos Lemoako beharginak, hildakoaren familia, lagun eta lankideai alkatasuna adierazoteko. Hilaren 6an barriz, istripuak lan-baldintza kaskarren ondorio dirala salatuteko, Cementos Lemoako beharginak deituta, eta Lemoako Udalaren

babesagaz, ordu biko lan-ixteak, 11:00etatik 13:00etara, egin ebezan Lemoan. Lan-ixtearen segmentua oso ona izan zala dino Amaier Foruria LABeko Komiteko kideak. "Espero genduan baino askoz hobea. Ordu bi horreetan herria geldirik ikusi genduan. Taberna bat izan ezik, taberna eta komertzio guztiak zarratuta".

Manifestazioan sindikatu eta beharginak batera, herritarrak eta udal ordezkariak egon ziran, Saioa Elejabarrieta Lemoako alkate tartean.

### Prekarietatea

LAB sindikatu ordezkariak lan-baldintza kaskarrak eta prekarietateak istripu asko eragiten dabezala ekarri eben gogora manifestazioaren ostean. Cementos Lemoako istripuaren kasuan, hildako behargina azpikontrata baten egoan beharrean. "Lan istripuak ez dira kasualitate kontua, arazo estrukturala da, gaur egun inposatzen deuskuen eremuan dago arazoa" salatu eban LAB sindikatuak.

## AREATZA

# Partaidetzea %45ekoa izan zan GEDk antolatutako Areatzako herri galdeketa

Zehazkiaren 5ean, Areatzako 463 lagun hurreratu ziran Dagigun alkarteko lokalera, ea Euskal estatu burujabe bateko uritarrak izan gura eben erantzuteko.

### Erredakzioa

Partaidetzea %45,35ekoa izan zan eta galdeketa parte hartu ebenen %90,28k baietz erantzun eben. Ezetz %5,83k; botopapel zuria %1,08k sartu eban hautes-tontzian eta balio ez dauan botoa %2,81ek emon eben. Areatzako herriaren parte hartzeagaz pozik agertu dira antolatzaileak eta herritarrak zoriondu ditue "etorkizun politikoa ebatzeko prest" agertu diralako.

Zehazkiaren 5ean, 13 herritan egin ziran herri galdeketa eta guztira 21.028 lagunek emon eben botoa. Parte hartzea batzate %13,07koa izan zan

eta horreetako %95,22k euskal estatu burujabe baten alde egin eben. Parte hartzerik handiena Ibarrangelun (%57,74), Elantxoben (%53,26) eta Otxandion (%46,98) izan zan. Txikerrena barriz, Leioan (%9,44), Erandion (%10,02) eta Getxon (%11,86).

Diman, 2016ko zehazkiaren 7an parte hartzea %63,5ekoa izan zan, eta Zeanurin aurtengo maiatzaren 7an, %55,16koa.

Areatzak Arratiako herri galdeketa lekukoa Igorreri pasau eutsan. Izan be, Igorren herri galdeketa datorren urtean egiteko asmoa daukie Gure Esku Dagokoak.



## DIMA

# Ikurriñeari eta Taberna Barriri omenaldia Oban

Obako Kobaso Kultur eta Kirol alkarteak, Udalaren laguntzeagaz antolatuta, Diman ipini zan lehenengotako ikurriñeari eta Bar Patxo, edo Obakoentzat, Taberna Barriri omenaldia egingo deusez auzotarrak. Zehazkiaren 18an izango da Obako plazan, eguerdiko 12:00etan.

### Erredakzioa

Ekitaldia hasteko jantzari bik agurra egingo deusez Isidora Bernaola eta Patxi Ortuzarren familikoai; hau da Taberna Barrikoen

familiari, eta ostean oparitxo bat Udalak. Gaur egun ez Isidora ez Patxi ez dira bizi, eta taberna be botata dago, baina Obako bizilagunak ez dabez aitzu. Izan be, Diman agertu zan lehenengotako



ikurriñea, Obako eleiza ondoko San Juan haretan agertu zan, eta euren etxean egindakoa ei zan.

Arkaitz Estiballesek eta Ibon Izak bertsoak botako dabez eta gero ikurriñea ipiniko dabe San Juan haretan, 1976-1977 ingu-

ruan ipini ebena gogoratuteko. Herri kirol erakustaldia, kopaua eta trikitxea ez dira faltauko.

### Alabeak egindako ikurriñea San Juan haretan

Alokairuan eukien Patxi eta Isidorak Bar Patxo edo Taberna Barri. "Taberna ha zan auzoko bihotza. Han antolatuten zan dana" azaldu deusez BEGITURI Angel Arrizabalaga auzokoak. Arrizabalagaren esanetan, "Isidora sano eskuzabala zan eta beti euskeraz egiten eban. Patxi be abertzalea zan baina ez eban hain agirian erakusten. Eta egun baten, euren alaba batek ikurriña bat josi eban. 1976 edo 1977 urtea zan gitxi gorabehera. Oban, beste leku askotan legez, San Juan bezperan arbola bat ipinten eben zutunik eleiza ondoan. Urte haretan, auzoko ume batzuek, San Juan haretan ikurriñea ipini eben. Eta han egon zan urte osoan".

## IGORRE

# Agustin Elexperi omenaldia

### Erredakzioa

Hilaren 25ean Agustin Elexpe Igorreko aguazil ohiari omenaldia egingo deusez igorretarrak. Pasa dan apirilaren 21ean izan zan Elexperen atzen lan eguna eta ordutik hona asko eta asko izan dira herritarrikandik jaso dauzan esker on eta agurrak. Oingoan osteran herritarrik herri mailako omenalditoxa prestatu deusez, kalejirea (13:00etan) eta bazkaria (14:30ean) antolatuz, hainbeste urtetan herriaren alde egin dauanagaitik. Han batuko dira herritarrik eta seguru ez dala jai girorik faltauko. Bazkarirako txartelak Gau Loran, AZ Rugby Tabernan eta Jubiladuenean erosi leitekez, 19 euroan, hilaren 21era arte.



## ARTEA

**2018ko aurrekontuen zirriborroa aurkeztuko dau Udalak hilaren 30ean****Erredakzioa**

"Arteoztarron biltzarra", herri asanblada orokorra zemendiaren 30ean izango da, 19:00etan, Arteako Kultur Etxean, 2018ko aurrekontuen zirriborroa herritarrei aurkeztuteko.

Han, herritarren atzen ekarpenak jasoko dira Ogasun Batzordeak aurrekontuen atzen proposamena egin aurretik. Atzen proposamena abenduaren 8an aurkeztuko da eta abenduaren 19an bozkatuko dira 2018rako Arteako Udalkontuak.



**Aurrekontuetako auzo batzar baten irudia.**

## AREATZA

**Areatzako Udalak opariak egingo deutsez ume jaiobarriari****Erredakzioa**

Udalak, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateagaz (UEMA) batera, ume jaiobarriari oparia egiteko ekimena abiatu dau. Jaiotze eta herrian erroldatu diranai bialduko jakie postaz oparia.

Idoia Kareaga marrazkilariak

sortutako ipuin personalizaua eta autoan ipinteko pegatina jasoko dabe umeen gurasoak. Ipuina euskeraz eta gaztelaniaz dago idatzita eta ume jaiobarriaren eta laguntxo baten istorioa kontetan dau. UEMAk autoan ipinteko eskeinitako pegatina be bialduko jakie guraso barriari.

## IGORRE

**Abenduaren 9an arratiarrak Parisera****Illart Gumuzio**

Bakearen Artisauak, abenduaren 9rako, Parisera biajea antolatu dabe. Ekimenaren helburuak, presoen hurbiltzea eta alkartzea, DPS estatusa kentzea, gaixorik dagozan presoak askatzea eta zuzenbide arruntaren barruan eskubide hori lortu daikien presoentzat baldintzapeko askatasuna eskatzea dira. Joan gura dabenak, autobusez egin beharko dabe, trenetako plazak agortu dira-eta. Izen-emotea eta sostengurako bonoak Igorreko Herriko Tabernan edo herri bakotzeko arduradunagaz hartu-emonetan ipinita erosi daitezke abenduaren 3ra orduko. 30 arratiarrek baieztatu dabe joango dirala.

**Aurkezpena, zemendiaren 16an**

Biajearen aurkezpena, Igorreko Kultur Etxean egingo da hilaren 16an. 19:30ean hasiko da ekitaldia Naiara Zurinaga eta Txiki Marañonen gidaritzapean.

## ZEBERIO

**Ganadu erakusketea indartuko da XIX. Azokan****Erredakzioa**

Igaz ganadu alkarte barri bat sortu zan Zeberion eta Zeberioko ganaderuen alkarteak, ganaduen presentzia handitu gura izan dau Bertoko Produktuen Azokan. Hori dala-eta, ganadu erakusketea be egongo da. Azokea zemendiaren 26an izango da plazan 10:00etatik aurrera. Udalak antolatutuen dau Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartearen laguntzeagaz.

Azokan 35 postu egongo dira eta horreetatik 12 inguru Zeberioko ekoizle edo alkarteak izango dira. Bizkaia, Araba eta Nafarroako baseritarrak egongo dira gainontzeko postuetan produkturik onenak eskeintzen. Ezti, gaztaia, euskal pastela, baseriko ogia, artisautza eta baseriko produktu asko egongo dira salgai azokan. Gorbeialdek bertoko produktuen otzara bat zozketatuko dau.

Trikitiarearen soinuak eta taloak animauko dabe azokea.



## ARRATIA

**Ana Otadui, Izaskun Landaida eta Sara Gutierrez arratiarrak berbetan egongo dira****Erredakzioa**

EAI-PNVren *Arratiarrak berbetan* tertulia zikloaren hurrengo saioa, andren ikuspuntutik izango da. Ana Otadui, Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentea; Izaskun Landaida Emakundeko Zuzendaria eta Sara Gutierrez Areatzako zinegotzi ohia, Arteako Kultur Etxean egongo dira zemendiaren 23an, esparu politikoan egiten daben lanean izandako esperientziak bertaratutakoak konpartiduten.

Hizlariak gizon eta andren bardintasunerako abiatutako ekimenak kontauko dabez. Landaidak garapen bidean dagoan Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako VII. Planaren gainean egingo dau berba eta Gutierrezek orain dala gixi arte martxan egoan Areatzako Emakumeen Foroaren gainean, besteak beste.

## DIMA

**Herri galdeketearen urteurrena ospatuko dau Dimako GEDk**

**Dimako Alkarregaz, Gure Esku Dagoko taldeak, herri galdeketearen lehenengo urteurrena dala-eta, herri galdeketearen ostean zer egin hausnartuteko ekitaldiak prestatu ditu zemendiaren 24 eta 25ean, "Dimako galdeketearen lehen urteurrenean, alkarregaz herria egiten" titulupean.**

**Erredakzioa**

Horretarako, hilaren 24rako, "Zerk egiten gaitu herri?" izenpeko mahai-ingurua prestatu dabe. Arrastiko 19:00etan, eskoletan izango da eta bertan Jon Maia bertsolariak, Helena Franco EHUKo Ekonomia eta Enpresa Zientzietan doktoareak eta Ana Rodet Bartzelonan bizi dan euskaldunak hartuko dabe parte. Moderatzaile lanetan Iratxe Etxebarria kazetariak jardungo dau.

Behin estatu subirano edo independente izatera helduta, zer gertatuko dan itaunari erantzun gura deusie Diman. Maiak esparu sozio-kultural eta politikoa landuko dau, Francok ekonomiko fiskala eta Rodetek Kataluniako prozesuaren gaineko azalpenak emon eta hausnarketak egingo ditu. Ondoren, bertaratutakoak euren eretxia emoteko aukerea izango dabe. Eztabaidearen ostean, kopaua egongo da.

**Mintegiak eta tailerrak**

Hilaren 25ean, 09:30etik 11:30era, Ana Rodetegaz mintegia egongo da eskolan. "Hiru ar-

datz planteauko dira: Kataluniako herri mobimentua, dinamikea eta eboluzioa; instituzinoen inplikazioa, eta aurrerantzean zer?" azaldu deusie antolatzaileak BEGITURI.

Ordu batean, plazan, "Dima Alkarregaz Goruetan" izeneko ekimena ipiniko da martxan. Zati bi ditu: goruetan egiten ikasteko tailerra eta "Herritarren ituna". Izan be, Dimako galdeketea, deitutakoen %63,42k parte hartu eban eta horreen %95,3k euskal estatu burujabe bateko herritarra izateari baiezkua emon eutsien eta Alkarregaz GEDko Dimako taldeak, herritar eta alkarteai herri itunerako proposamena zuzenduko deutse.

Eskolan ipuin baten bitartez, demokrazia eta erabakitzeko eskubidearen oinarriak landuko dira umeakaz. Ondoren tailer bat egitea proposatuko jakie eta honen prozedura umeak azalduko dabe plazan nagusiakz batera egiteko ekintza praktiko baten bidez.

Eguerdiaren, 14:30ean, herri bazkaria egongo da eta bazkalostean, musikea, jantzak, diapositibak, argazkiak, Indusiko auzotarren antzerkia, bingoa eta atzenik, kantu poteoa herriko tabernetatik zehar.





## AREATZA

# Gazteakaz egingo dau behar Udalak 2018ko kontuak prestatuteko

Batzar orokorra egingo dau Udalak herritarraz zehazkiaren 29an, eta gazteen ekarpenak jasoteko, eurekatzatuko dira udal ordezkariak, lan talde bi eginez. Gaztelekuko kudeatzaileakaz landuko dira 12 eta 16 urte bitartekoan erretzi eta proposamenak eta 16 eta 18 urte bitartekoakaz beste lan talde bat egingo da.



Areatza.

### Erredakzioa

Zehazkiaren 20tik, abenduaren 4ra arte, buzoiak egingo dira plazan eta mediku konsultategian, herritarren idea eta iradokizunak batzeko. Proposamenak areatza-partehartzea@gmail.com helbide elektronikora be bidaltu daitezke.

Aurrekontuak egiteko modua aldatuko dau aurten Areatzak. Batzar gitxiago egingo dira, batzar orokorra eta gazteakaz, eta hasitako proiektuen jarraipenari lehentasuna emongo jako. Izan be, 2016an eta 2017an jentek erretzi asko emon ebazan eta proiektu asko hasita baina amaitu barik dagoz. "Proiektu asko dagoz egiteko, arlo sozialean, kulturean, urigintzan, bardintasunean eta euskeran". Eta igazko jarduerak umeakaz "politikoa eta praktikoa" izan zala erretzi, aurten gazteakaz egingo dabela behar azaldu deutsu BEGITU Asier Garcia Areatzak alkateak.

Herriko ondarea jagoteko, 2018an eraikin historikoak barriztuteko asmoa be badauka Udalak. "Areatzak ia ez dauka aktibidade ekonomikorik turismoaz aparte, ez daukagu industriarik, eta turismoa bultzatuteko plana egiteko asmoa daukagu. Hori dala eta, eraikin mudejarra eta beste lau eraikin barriztuten goaz. Diru partida bategaz hasiko gara 2017an eta 2018an jarraituko dogu" dino alkateak.

2017ko urtea amaitu baino lehen, jubiladuen lokalean obrak hasiko dira, Udal bulegoak beheko solairura pasetako proiektua be badago eta enpresa mintegi bat be ipini gura dabe martxan 2018an.

### Gazteakaz beharrean

Arlo sozialean premia asko ikusten ditu Udalak, horreen artean gazteen beharrezanai erantzutea. Horregaitik, Gazteleku edo "ekintza eta aktibidade anitzak egiteko esparru barri bat" eta Gazte mahia ipinteko asmoa daukie. "Igaz droga konsumoen diagnostikoa egin genduan eta orain heldu jakuz proposamenak". Ekintzak egiteko proposamen horreetan oinarrituko dira.

Gazte herrian geratu daitezkan etxea alokairuan hartzea erretzuteko, aurten Areatza 1338 Udal alkatearen pisuak ekipetan hasiko dirala eta datorren urtean alokairuan ipiniko dituela, gazte baldintza bereziak eskeiniz dino alkateak.

### Peatonalizazioa

2017an amaituko da peatonalizazioaren lehen prozesua. Seinalizazio horizontala eta bertikala martxan ipiniko da eta 14:30etik edo 15:00etatik aurrera itxita egingo da plaza. "Hasikeran, persona bi egingo dira informazioa bananduten eta aparketako lekua non dagoan esaten. Ez dago arazorik, ikerketen arabera aparketako lekuak sobran dagozalako". 2018an, peatonalizazio prozesua Askatasun eta Bartolome Deuna kaleetara zabalduteko asmoa dauka Udalak.

Urtea amaitu baino lehen, Ibai Milikuak eta Jon Artetxek egindako hiru panel informatibo ipiniko dira, non dagozan komertzioak, ze negozio dagozan Areatzan, eta zeintzuk diran interesguneak adierazoteko. Bat Bolibarko aparkalekuan ipiniko da, bestea pisiznetako aparkalekuan eta bestea Hotelean. "Guretzat hotela puntu garrantzitsua da. 35.000 bisitari dakar urtero-eta".

## DIMA

# Ia 400 sinadura aurkeztu dabez Dimako plazaren prozesu parte hartzailea gelditzeko eskatuz

Landaburu eta inguruko bizilagunak sinadurak aurkeztu ebezan Udalean urri bigarrenaren 23an, plaza oinezkartzeko prozesu parte hartzailea gelditu eta beste prozesu parte hartzaile bat hasteko eskatuz.

### Erredakzioa

Larehun sinadura aurkeztu ebazala dino Iker Agirrek, sinadurak batzean ibili dan bizilagunak, baina ez dirala 400era ailegetan "gitxiago dira, batzuk Diman errolaturik ez dagozalako eta beste batzuk errepikatuta dagozalako" Dimako alkatearen arabera.

Zehazkiaren 2an batzartu egin ziran Udala, sinadurak aurkeztutako auzotako bizilagunak eta gainontzeko herritarak. Landaburu eta inguruko bizilagunakaz bakarrik, Udala beste batzar bat egitera konprometidu da.

Prozesu parte hartzailean egindako proposamen guztiak plaza oinezkartzeko aldekoak izan ziran eta premia horrerri jarraituz egindako proiektua aurkeztu eban arkitektoak urri bigarrenaren 5ean. Proiektuak Landaburu kalea bide bakarrekoa baina erabilera mistokoa planteetan dau, plazatik ahalik eta zirkulazio gitxiaren pasea, eta plazako aparkalekuak plazatik kentzea. Landaburu inguruko hainbat bizilagun ez dago ados proiektuagaz, eta euren proposamena egiteko beste prozesu parte hartzaile bat abiatzeko eskatu

deutsie Udalari. Udalak eurekatzatuko, iradokizunak jaso, aztertu eta proiektuan sartzen ahaleginduko dala agindu dau.

### Zirkulazioa eta aparkalekuak

Agirrek, abiatu zan prozesuan parte hartu ez izana ez dala ondo egon, baina errazoiak asko izan dirala dino: "Landaburu jente nagusia bizi da, batzuek behar egin behar dabe... eta ez dabe parte hartu, baina horrek ez dau beste ezer aldatuten".

Plaza "politikoa" ipini bai, baina bertan aparkalekua eta zirkulazioa mantendutearen aldekoak dira auzoko asko. "Landaburu sarrera bi daukaz, eleizara joateko bat eta Batzokira doana bestea. Bat zarratu ezkerreko bakarra gertatu da eta arazoren bat badago



Dimako plaza.

ez dago nondik pasau. Aparkalekurik ez ipintea plazan be txarto ikusten dogu". Izan be, Agirrerren esanetan, Dimara jentek bazkaien joaten da eta plazan aparkaleku ezin eragina izango leuke horretan, tabernarien kalterako.

Dana dala, sinatu eben askok abiapuntu eta helburu desbardinak daukiez: batzuek Landaburu bidean egingo dan zabalketearen ardura daukie, beste batzuek norantzakoaz dagoz arduratuta eta beste batzuek aparkalekuak kentzearen gaineko kezka azaldu dabe, berbarako.

Astelehenean barikura ez dala inor egoten plazan eta, Agirrerren ustez, Diman beste lehentasun batzuk dagoz "Diman gauza asko dagoz egiteko. Dima ez da plaza bakarrik".

### Prozesua hasita baina zabalik

Prozesua hasita dago eta hasikeratik parte hartu eben dimoztarri "begirune guztia zor" deutsela dino alkateak. Hasita baina zabalik eta Landaburu eta Eleizaldeko bizilagunak egindako iradokizunak "aztertzen eta proiektuan buztartzen" dabilzala dino alkateak. Eta Udala proiektua hobeto ezagutu eta euren ikuspuntua emon dagien batuko da inguru horretako bizilagunakaz. Gainera, "proposamen barria aurkeztu eta barriro iradokizunak egiteko aukera emongo da".

Udalak "ahal danik eta adostasun handiana lortzeko beharrean" diharduala dino alkateak.

## IGORRE

# Kiñu Gaztetxea ez zarratuteko eskatzeko manifestazioa egin eben Igorren

### Erredakzioa

"Gaztetxearen defentsan herria kalera" lemeagaz hirurehun lagun inguruk parte hartu eben zehazkiaren 11n Kiñu Gaztetxearen alde; tartean, Beinat Anzola Igorreko alkatea eta EH Bilduko zinegotziak. Manifestaziorako deia Gazte Asanbladak egin eban, aurreko egunean, hilak 9, eraikineko sarrailak aldatuta topau ebezanean.

Sarrailak jaubeak aldatu ebazala dino Gaztetxe iturriak, baina eurak "legitimidade eta legalidade osoz"

dagozala Gaztetxean dino eta holan konfirmatu deutsela abogaduak.

Manifestazioaren ostean irakurritako komunikaduan, aurreikusita egoan programazioagaz jarraitu-

teko asmoa adierazo eben Gaztetxeoak. Hilaren 18rako, Rockupa Fest jaialdia dago antolatuta eta horregaz aurrera egingo dabela konfirmatu deutsie BEGITU.





## ZEMENDIAK 25

# "Feminizidioen kontra, autodefentsa feminista" leloagaz andrakanako indarkeriaren kontra agertuko da Arratia

Zemendiaren 25ean, Andrakanako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da eta Arratiako andra taldeak, talde feministak, Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) eta udalak, hainbat ekintza antolatu ditue, gizartea indarkeria honen kontra sensibilizatu eta mobilizetako.

## Erredakzioa

Izan be, bardintasun ezaren adierazpen larriena da andren kontrako indarkeria eta munduan sarrien egiten dan Giza Eskubideen urraketea. Zemendiaren 25eko manifestazioa, Igorreko Kultur Etxetik abiatuko da 12:00etan, "Feminizidioen kontra, autodefentsa feminista" leloean.

Manifestazioaren ostean poteoa egongo da. Partaideak bozinak eroango dabez eta hamar minuturo, hau da munduan indarkeria sexistek andra bat hiltzen dauan sarritasunagaz, jo egingo dabez, jentea konsziente izan daiten zenbatero hiltzen daben andra bat eta feminizidioaren tamainaz. Bezperan, kontzentrazioa egongo da Artean arrastiko bostetan Herriko plazan.

Hilketak indarkeria prozesu baten muturrean dagoz; mespretxu eta egunerokotasunean errespetu faltakaz hasten dan prozesuaren muturrean hain zuzen be, eta zuztarretara joteko, Arratian, mikromatxismoak lotutako ekintza bigaz zabalduko dabe aurtengo zemendiaren 25aren inguruko kanpaina bateratua.

Zeanuriko Mazala andra taldeak adimen emozionala landuteko hiru berbaldi antolatu dauz urri eta zemendian zehar. Hirugarrena, zemendiaren 15ean izango da, arrastiko seiretan udaletxe azpiko gelan. Bagabiltzako Nagore Badiolak "isileko tratutxar" moduan definitzen diran mikromatxismoak deuseztatze, adimen emozionalak egin daikien ekarpena azalduko dau. Mikromatxismoak identifiketako ikastaroa be egongo da Jabe-kuntza Eskolearen barruan Diman, hilaren 16, 23 eta 30ean, 18:30ean Abaro Aretoan.

Zeanuriko Udalak, andra eta gizonen bardintasunerako erronkak landuteko tailerra antolatu dau hilaren 27an, 18:30ean, Zeanuriko udaletxeko pleno aretoan.

## Gazteen inplikazioa

Arratiako 12 eta 26 urte bitarteko gazteak aukerea izan dabe hilaren 13ra arte matxismoaren kontrako bildurrik bako jarkerea erakusten dabezan ikus-entzuzko lanak aurkeztuteko Beldur Barik Lehiaketan. Arratia mailako sari banaketea 24an izango da Igorreko Kultur Etxean arrastiko sei t'erdietan. Aurten be, Beatriz

## AZAROAK

ANDRENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

25

25N-DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES

**15 NOVIEMBRE**  
Curso "MICROMACHISMOS: EL MALTRATO SILENCIOSO". Desde las 18:00h hasta las 20:30h, en el aula debajo del ayuntamiento de Zeanuri.

**AZAROAK 24**  
KONTZENTRAZIOA. 17:00etan, Arteako plazan.  
BELDUR BARIK SARI-BANAKETA. 18:30etan, Igorreko kultur etxean.

**AZAROAK 16, 23 eta 30**  
"MIKROMATXISMOAK IDENTIFIKATZEN" ikastaroa. 18:30etatik 20:30etara, Dimako Abaroa aretoan.

**AZAROAK 25**  
ZUMBATOI FEMINISTA. 10:30etan, Arantzazuko plazan.

**AZAROAK 17**  
"GEREZI MIINGOTSAK" liburaren aurkezpena eta solasaldia Elena Fernandez eskutik. 19:00etan, Dimako Abaroa aretoan.

**AZAROAK 25**  
"LEMOA MOREZ APAINTZEN" ekimena. 18:00etan, Lemoako gaztelekutik abiatuta.  
"VOLAR" dokumentalaren proiektzioa. 19:30etan, Igorreko Lasarte aretoan.

**AZAROAK 20tik 24ra**  
TXAPA FEMINISTA TAILERRA. 17:00etatik 20:00etara, Bediako liburutegian.

**AZAROAK 27**  
"BERDINTASUNA: GARAPENERAKO GILTZA. Emakume eta gizonen berdintasunerako erronkak". 18:30etan, Zeanuriko udaletxeko pleno gelan.

**5 DICIEMBRE**  
Proyección y debate del documental "ÉL NUNCA ME PEGÓ" de la mano de Irantza Varela. A las 19:00h, en el salón de actos del ayuntamiento de Areatza.

**MANIFESTAZIOA**

•POTEOA

Azaroak 25, 12:00etan  
Igorreko kultur etxetik hasita.

**Feminizidioen kontra,  
autodefentsa feminista!**

**RUGBY**  
**TABERNA**

•Egin zaitez bazkide!  
•09:30etik zabalik  
•Asteburretan pintxo bereziak



arratiko.zekorak@gmail.com  
<http://santxisme.blogspot.com/>

**arratiako**  
**instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Fab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

94 631 90 08

M. Jose  
zure arropa

**GALANTA**




Agirre  
Lehendakaria 23  
48140 Igorre  
galanta@hotmail.es

 [www.facecook.com/galanta.lenceria](http://www.facecook.com/galanta.lenceria)

**begitu**

arratia ubide berbera



## Konzentrazioa egingo da Lemoan herrian izandako eraso sexisteak salatuteko

Lemoan izandako eraso sexisteak salatuteko, "Eraso sexistarik ez!" lelopean, Lemoako andrak eta Udalak, hilaren 17an, 18:30ean, Intzuntzako bidekurutzan konzentrazioa egingo da.

Izan be, herriko andra batek genero indarkeria salatu eban aurreko astean. "Hau kasu bat izan da, gurean be holangoak gertatzen dirala gogora ekarten deuskuna. Lemoako herrian andren kontrako ezelango indarkeriarik ez dogula onartzen adierazo gura dogu" azaldu deutso BEGITURI Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak.

Egizabalek ipiniko detuso umorea ekitaldiari eta Arratian egindako ikus-entzunezko onenak ikusteko aukerea egongo da.

AUMtik, hurrengo eguneko manifestazioan parte hartzea bultzatu gura dabez gazteak. Izan be, indarkeria sexisteagaz amaituteko jendarte osoaren inplikazioa behar da; "gazte, heldu eta edadekoak; andra eta gizonak" dino Xabier Pastor AUMko Berritasun Teknikariak. Aurreko astean, hilaren 20tik 24ra, arrastiko bostetatik zortziretara, txapa feministak egiten ikasteko tailerra egongo da Bediako liburutegian.

### Zinea, literatura eta zumbatoia

Tailerrez gainera, arte eta kirol ekintzak be antolatu ditue Arratian indarkeriaren kontrako sensibilizaziorako. Holan, zemendiaren 17an, Dimako Andraizea alkateak, Elena Fernandez *Ge-rezi mingotsak* liburuaren aurkezpena antolatu dau, eta ondoren liburuaren inguruko barriketaldia egongo da egileagaz.

Hilaren 25ean, 10:30ean, zumbatoi feministea antolatu dabe Arantzazuko plazan. Zun-

ba feministarako erabiliko dan musikea Beldur Barik-ek egindako zerrendakoa da, Spotify-en egon zana. Arrastiko 18:00etan, Lemoako Gaztelekitik abiatuta herria morez apainduko dabe. Aurretik Udalak etxe guztietara puntu moreak bialduko dauz, lehioetan ipinteko eta Lemoa indarkeria sexistearen aurka dagoan herria dala adierazoteko.

Dokumental bi ikusteko aukerea be egongo da egunotan. Zemendiaren 25ean bertan, Emakundek aurkeztutako *Volar* Bertha Gaztelumendik zuzendutako filma Igorreko Lasarte Aretoan, 19:30ean egongo da ikusgai. Film honek, indarkeria sufridu daben 9 andraren testigantzak jasoten dauz. Ekimena "andrak eurak euren testigantzak publiko egiteko sentidutako preminatik sortu da eta genero indarkeriaren kontrako lan ausarta eta konprometidua" dala dinoe Emakundetik.

Bigarren dokumentala abenduaren 5ean proiektuak da, Areatzako udaletxeko areto nagusian arrastiko zazpiretan. *El nunca me pegó* filma proiektuak dabe

Zemendiaren 25eko manifestazioa Igorreko Kultur Etxetik abiatuko da 12:00etan

## Indarkeria matxisteak 7 euskal herritar hil ditu 2017an

Mugarik ez dauka indarkeria sexisteak, baina munduan hildako guztien izenak eta bizitzak ez daukagu jakiterik. Guregandik hurren bizi izan ziranen izenak ekarri gura izan doguz lerrootara, ez aitzuteko, gogoan izateko.

2017an, zemendira arte, Euskal Herrian 5 andrazko hil ebazan andren kontrako indarkeriak. Senarrak hildako beste biren izenak be badakarguz hona, Euskal Herrikan kanpo bizi ziran arren, Euskal Herrikoak ziralako eta hemen itxi dabezalako familia eta lagunak.

### Honeek dira hildakoak:

- Izena ez da jakitera emon. 92 urteko andrazko bat. Semeak hil eban urtailaren 10ean Portugaleten.
- Blanca Esther Marqués Andrés, 48 urte. Bikotekideak hil eban urtailaren 14an, Burlatan.
- Raquel Lopez Airas, 44 urte, eta bere 12 urteko semea Markel. Madrilen hil ebazan senarrak maiatzaren 2an. Eibartarra zan.
- Sofia Tato Pajares, 42 urte. Caceresen hil eban senarrak, abuztuaren 24an. Villabonakoa zan.
- Melodie Massé, 23 urte. Ustaritzen hil eban ezezagun batek urri lehenengoaren 13an. Haurdun egoan.
- Noelia Noemí Godoy Benitez, 32 urte. Senarrak hil eban urri bigarrenaren 28an, Sestaon.
- Ana Belen Jimenez Hurtado, 44 urte. Urri bigarrenaren 3an, hil eban senarrak Turison-en (Araba).

eta ostean, Irantzu Varelak zuzendutako eztabaidea egongo da.

Hainbat herrik, Arratia mailako kanpaineaz gainera, gaiari lotutako beste ekimen batzuk be antolatu ditue, Arantzazun, berbarako, hilaren 23an, Errezeta doktorea ipuin kontalaria egongo da arrastiko 17:30ean plazan.

### Zeberion Alcasarreko hilketak eta sexu-bildurra landuko dabe

Zeberion, zemendiaren 24an, 18:30ean, udaletxeko 2. solairuan Nerea Barjola, EHUko doktorea Alcasarreko hilketen gaineko berbaldea emongo dau.

"Arrisku sexualaren gaineko narrazinoak. Alcasarreko kasuaren azterketa feminista eta bildursexualaren erakuntza" izenpean, ikuspegi politiko-feministatik aztertuko dau krimena.

"Alcasarreko krimenen gainean sortutako narratibak zeharkatu ezinezko eremuai buruzkoa da, arrisku sexualaren gaineko kontakizun bat, beste andrazkoai abisua emotekoa. Ikuspegi feministatik narratiba honek berrikusteak indarkeria sexuala termino politikoe-tan ipinten dau eta bildurraren mugetatik kanpo, hauste, burruka eta erresistentzia feministaren mugak erakutsiz". Eta ondoren, 20:30ean, *Volar* filmaren emonaldia egongo da.

Hurrengo egunean, zeberioz-tarrai Igorre eta Bilboko manifestazioetara joateko deialdia egin deutsee Zeberioko Udaleko Berritasun Zerbitzutik.

### Feminizidioa

Feminizidio berbeak gorroto krimen bat adierazoten dau; hau da, andra bat hiltea andrazkoa dalako, eta genero indarkeria, indarkeria sexuala eta inpunidade handiko andrazkoen hilketak eta muturreko indarkeria jasoten dauz.

Feminicidio.net plataformaren arabera, aurten, zemendiaren 14ra arte, estatu espainiarrean 90 feminizidio eta hilketa eragin ditue. Datu ofizialez gainera (44 kasu), ez ofizialak, familiako batek egindakoak, hildako umeak, datu nahikorik bakoak, eta beste andrazko hilketa batzuk be jasoten dira zenbaketa honetan.





## ESKALADEA

## Itziar Zabala Espainiako Eskalada Kopako faboritoa da proba bakarra falta danean

## Erredakzinoa

Zemendiaren 11n Plasenciako Cereza Wall Rocodromoan, Espainiako Kopako hirugarren proba Itziar Zabala eskalataile dimoztarrak irabazi eban. Hiru proba jokatu, lehenengo postu bi eta hirugarren bat lortu ditu eta Kopea irabazteko faboritoa da. Atzen proba, zemendiaren 25ean jokatu da Bartzelonan.

Lehenengo proba Madrilen

izan zan, urri lehenengoaren 30ean. Han hirugarren egin eban dimoztarrak Maria Alarcon eta Rut Casas katalanen atzetik, baina hurrengo proba biak irabazi ditu Espainiako txapelkunak. Bilbon jokatu zan bigarren proba, urri bigarrenaren 28an eta Plasencian hirugarrena zemendiaren 11n.

Zabalak Espainiako Bulder Txapelketa be irabazi eban Bartzelonan urri bigarrenaren 22an.

## PELOTEA

## Erauzkin eta Ziarrusta Kolonbiako Munduko Pelota Txapelketan izango dira

## Erredakzinoa

Euskal Selekzinoa Munduko Pelota Txapelketako proba guztietan lehiatuko da. Bederatzi pelotari eta entrenatzaile bi joango dira Kolonbiara txapelketan parte hartzeako. Arratiar bi dagoz taldean, Dimako Txumulueta klubeko Ekhi Ziarrusta pelotaria eta Lemoako klubeko Aitor Erauzkin, one wall-eko hautatzailea. CIBK (Confederation International de Jeu de Balle) Esku Pelotako Konfederazio Internazionalak antolatutako munduko txapelketa eta aurtengo edizioa, zemendiaren 18tik 27ra arte jokatu da Kolon-

biako Nariño departamentuko San Juan de Pasto uriburuan. Hamazazpi herrialdek hartuko dabe parte.

Italia, Belgika, Holanda, Frantzia, Ingalaterra, Mexiko, Venezuela, Ekuador, Bolivia, Uruguai, Txile, Argentina, Paraguai, Valentzia, Kolonbia eta Euskal Herriko selekzinoak neurtuko dira.

Pelotariak lau modalidade desbardinetan jokatu dabe: llargues, joko internazionala, chaza eta one wall-a. Llargues, internazionala eta chaza zuzenean jokatuten diran modalidadeak dira eta bote luzearen antzekoak dira. Dimoztarrak hiru modalidade honeetan jokatu dau.

OPERA EN TRES ACTOS.

### V. AZARO MUSIKALA ARTEAN

OPERA EN TRES ACTOS.

**AZAROAK 10. Arratsaldeko 19:00etan, Kultur Etxean**  
IPUIN MUSIKALA

**AZAROAK 11. Arratsaldeko 19:00etan, Kultur Etxean**  
KONTZERTUA  
Bilbo Musika Eskolako Konboa (Jazz-Blues-Soul kontzertua)

**AZAROAK 11. Gaueko 21:00etan, Arteako Herriko Bentan**  
KONTZERTUA  
Lorenzo Mena

**AZAROAK 17. Arratsaldeko 15:00etan, Arteako Eskolan**  
Arteako Eskolan musika ere bai, jardunaldi irekiak

**AZAROAK 17. Arratsaldeko 19:30ean, Andra Mari elizan**  
Luis Iruarizaga Abesbatza, Arratiako Musika Eskola, Arteako eskolako umeak eta Arteako umeak

**AZAROAK 17. Gaueko 21:30ean, Arteako Batzokian**  
KONTZERTUA: SONIC FREE STATION

**AZAROAK 18. Mataderoan**  
19:00etan, Serigrafia tailerra Torontileren eskutik  
Ekarri zure kaniseta eta serigrafiatu "Azaro Musikala" logoa.  
Gaueko 20:00etan, KONTZERTUA: NIÑO BRAVO

**AZAROAK 24. Arratsaldeko 18:00etan, Musika Eskolan**  
Arratiako Musika Eskolaren eskutik  
KALEJIRA+KONTZERTUA+TXOKOLATADA

**AZAROAK 25. Gaueko 21:30ean, Ekomuseoan**  
KONTZERTUA: TUCSON

**AZAROAN ZEHAR LUDOTEKAN...**  
Ludotekak musika daroa!  
Musika tresnen tailerrak, mozorroak, kalejira...

# ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)

Basoak garbitzeko makineria

## ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAITZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA



## FUTBOLA

# Arratia bigarren postuan

### Erredakzioa

Arratia futbol taldeko andrazkoen taldea bigarren postuan dago liderrarengandik puntu batera hamabi jardunaldi jokatu eta gero.

Hilabete honetan jokatuak hiru partiduetatik bi irabazi eta bat bardindu dau Arratiak. Hilaren 1ean bana bardindu eban Elorrioren kontra etxetik kanpo, 4an 6

eta 0 irabazi eban Lakuaren kontra Urbietan, eta 11n jokatuak atzen partiduan 2 eta 5 irabazi eban Arratiak Arizmendiren kontra. Hurrengo partidua Derioren kontrako izango da 19an, 10:30ean jokatu dauana Igorren.

Andrazkoen B taldea osterira hirugarren dago sailkapenean. Hilaren 12an 3 eta 1 galdu eban Ugao taldearen kontra etxetik

kanpo jokatuak norgehiagokan. Hurrengo partidua Basauritar taldearen kontra jokatu dabe 18an, 15:00etan Urbietan.

### Gizonezkoen A taldea

Arratiako gizonezkoen lehen taldea seigarren postuan dago 13 puntugaz 8 jardunaldi jokatu ostean. Hilaren 4an, 1 eta 0 irabazi eban Ugara A taldearen kontra. Hilaren 12an osterira Arratiak ez eban emoitza onik lortu Erandioren kontra etxetik kanpo jokatuak partiduan, 2 eta 0 galdu eban. Hurrengo partidua Zallaren kontra jokatu dau Arratiak 18an, 17:15ean Igorren.

### Arratia B eta LemoaHarrobi

Lurraldeko Bigarren Mailako bigarren taldean dagoz Arratia B eta LemoaHarrobi taldeak. Talde bien arteko derbia jokatu dabe honezkerok, urrian izan zan Lemoan eta etxeko taldeak 3 eta 1 irabazi eban Arratia Bren kontra.

LemoaHarrobi hirugarren dago 16 puntugaz. Hurrengo partidua Padura Bren kontra jokatu dau Arlonagusian 18an, 18:30ean.

Arratia B osterira zortzigarren da 8 puntugaz. Hurrengo partidua Basurto Bren kontra jokatu dau etxetik kanpo 19an, 18:15ean.

## KIROL ASTEA

# Hapkido eskola eta beste ekintza ugari Lemoako Kirol Asteko astegoienean

### Erredakzioa

Zemendiaren 13tik 19ra da aurturten Lemoako Kirol Astea eta oindino ikusi eta ikasteko asko geratuten da kirolaren inguruan Lemoan. Barikutik hasi eta astegoienarako, pelota partiduak, herri kirolak, hapkido, jantza modernoa, Abel Barriolari alkarrizketea, eta asteari amaierara emoteko, Lemoatx Trail Mendi Lasterketea dagoz aurreikusita.

### Zemendiak 17, barikua

16:30ean, Lemoako Esku Pilota Taldeak antolatuta Pelotea Herriz Herri, frontoian.

19:00etan, Lemoako Esku Pilota Taldeak antolatuta, umeen pelota partiduak frontoian.

19:00etan, Lemoako Txirindulari Elkarteak antolatutako mahai-ingurua "Emakumeak eta txirindularitza".

19:00etan, SDK Hapkido Bizkaik

antolatuta, Hapkido defentsa personalerako dobako eskolea kiroldegian.

20:30ean, Lemoako Esku Pilota Taldeak antolatuta, Abel Barriolari alkarrizketa irekia Joseba Urkiolaren eskutik frontoian.

22:00etan, nagusien pelota partidua.

### Zemendiak 18, zapatua

11:30ean, Kirlan-ek antolatuta, jantza modernoko masterclass-a kiroldegiko kantxan.

16:30ean, Mendieta Herri Kirol Taldeak, HerriSport-ek eta Ongi Etorri Errefuxiatuak-ek antolatuta, herri kirol parte hartzaileak Atxeta plazan.

### Zemendiak 19, domekea

08:00etan, Lemoatx Trail Mendi Martxa luzea; 09:00etan, Lemoatx Trail Mendi Martxa laburra; 10:00etan, Lemoatx Trail Mendi Lasterketa luzea; 11:00etan, Lemoatx Trail Mendi Lasterketa laburra. Eskolako aterpetik hasita.



Argazkia: Javi Urola.

Arratia taldea Goierri Gorri taldearen kontra jokatuak partiduan.

# Aurrekontu parte hartzaileen Kanpaina 2017



Azaroaren 29an, asteazkena  
19:00etan, batzar zabala  
Udaletxeko Areta Nagusian

Iritzia emateko buzoiak azaroaren 20tik abenduaren 4ra  
Helbide elektronikoa: [areatzapartehartzea@gmail.com](mailto:areatzapartehartzea@gmail.com)

\* Gogoratu alkate edo zinegotzlekin elkartzeko aukera daukazula ere. Deltu udaletxera, utzi zure telefonoa eta hitzordua adostuko dugu.



begitu  
ematea urbide nolario



## BERBALDIAK

**Guatemala eta Saharako andren giza eskubideen defendatzaile bik berbaldiak egingo dabez Igorreko Kultur Etxean****Erredakzioa**

Noka talde feministek, Igitiek eta Ongi Etorri Errefuxiatuak Arratiak, CEAR Euskadiren Giza Eskubideen Defendatzaileen programea dala eta, Guatemalako Lolita Chavez eta Marokoko Leila Lili andren eskubideen defendatzaileen egonaldia aprobetxatuz, zehazkiaren 27 eta abenduaren 11rako berbaldiak antolatu dabez Igorreko Kultur Etxean.

Berbaldiak arrastiko 18:00etan

izango dira. Hilaren 27an, Guatemalako Lolita Chavezek, giza eskubideen defendatzaileen erresinoia eta multinazionalen kontrako burrukearen gainean egingo dau berba.

Abenduaren 11n, barriz, Leila Lilik, Marokok okupatutako lurraldeetako aktibista sahararrak eta Arantza Chacon, Arabako SEADen lagunen alkatetako kideak, Mendebaldeko Sahararen gatazkan andrazkoen papelaren gainean egingo dabe berba.

## IKUSKIZUNA

**Maitane Izak irabazi dau Jentilak Diman'17 Argazki Lehiaketean****Erredakzioa**

Txumuluxueta alkarteak urri bigarrenaren 14an egindako *Jentilak Diman* ibilbide mitologikoaren gaineko Argazki Lehiaketaren sariak emon ditu jakitera. Argazki onenaren saria Maitane Iza dimoztarrak lortu eban eta bigarren argazki onenaren saria Mikel Garcia lemoztarrak. Gainera, epaimahaiak aitamen berezia saria emon eutsan Maitane Izak aurkeztutako bigarren argazki bateri.

Mendi ibilbide mitologikoan gertatu zana jasoten dauan bideoa be egingo dau Txumuluxuetak eta abenduaren 15ean jarriko dabe salgai. Bideoak 20 minutu inguru iraungo ditu eta 10 euroko prezioan erosi ahal izango da.

**Balorazino ona**

Alkarteak *Jentilak Diman* ekitaldiko balorazino ona egin dau. Lehen aldiz aste osora zabaldu dabez ekintzak herrian eta emoitzeagaz

pozik agertu dira antolatzaileak. "Herriko eskolako arduradunakaz berbatu legez ipuin mitologikoen kontalari jardun eban urri bigarrenaren 10 eta 11an, eskolaume guztiengana helduz, personaje mitologiko desbardinak ezagutzen emonez. Hilaren 11n herriko liburutegian Iñaki Carretero ipuin kontalariak bost urte baino gehiagoko umeentzat emondako ekitaldia be arrakastatsua izan zan. Asteazkenean zehar herria girotzeko udaltxeko hormatitak eskegitako argazki eta herriko pintoreak margotutako izaki mitologikoak harrera ona izan dabe herrian. Barikuan, hilaren 13an, Ataunen jentilak buruz egiten dabezkan ekitaldiak azaltzeko Jon Aizpuruak egindako berbaldiak sortu eban interesak jubiladuen aretoa guztiz bete eban eta ez eban inor defraudau. Azkenik, zapatuko mendia ibilbide mitologikoak, eguraldia lagun, helburu guztiak bete ebazan" azaldu deusie BEGITU.



Lehiaketako argazki irabazlea.

## KONTZERTUAK

**Rockupa Fest Kiñu Gaztetxean**

Zehazkiaren 18an, Igorreko Kiñu Gaztetxean, IV.

Rockupa Fest izango da, Gaztetxea okupau ebela lau urte dirala ospatuteko.

**Erredakzioa**

Horretarako bertso bazkaria egingo dabe gaztetxean Oihana Bartra eta Izar Mendigurenegaz eta gauean, Igorreko hiru tabernetan kontzertuak egingo dira. Kontzertu honeetan, rock munduan andrak daukien papela aldarrikatu gura dabe antolatzaileak eta horregaitik joko daben talde guztietan, gitxienez andra bat dago.

**Rockupa Fest**

Bertso bazkariagaz hasiko dira

ospakizunak 14:30ean Kiñu Gaztetxean eta bazkalostean jokoak egingo dira. Txartelak Herrikoan eta Kukuman erosi leitezke eta menu desbardinak dagoz aukeran. Lehenengo kontzertua 21:00etan izango da, Axular Herriko Tabernan. Han Perlak taldeak joko dau. Perlak 2013an Zarautzen sortutako taldea da eta hiru disko ditu kalean, *Perlak* (2014), *Bandera moreak* (2015) eta *Itzaletatik* (Gaua Records, 2016).

Ondoren Storm taldearen txandea izango da. Honek 22:30ean



joko dau Kukuman. Durangoko taldeak *Over the Bridge* (Lorentzo Records, 2017) izeneko bere lehenengo diskoa kaleratu eban zehazkiaren.

Gauerdian, 24:00etan, AZ Rugby tabernan, Ksus Belly taldearen txandea izango da. Galdakaoko taldeak punk rock musikeagaz animauko dau gaua. Taldearen izena daukan maketa bat dauka kalean, Youtuben be entzun daitekena.

## JAIK

**Sanandresak prest Asterrian****Irati Urien**

Zehazkiaren amaieran hasi eta abenduaren hasieran amaituko dira aurten Zeanuriko Asterria auzoko jaiak. Urri-Barren txokoko kideak prestatu daben egitaraua egunez hasiko da, San Andres egunez, zehazkiaren 30ean hain zuzen be. 19:00etan mezea egingo da auzoko ermitan eta jarraian txokolatea bananduko dabe txokora hurreratuten diranen artean.

Abenduaren 2an, urteetako

beharragaz lortu dan askok espero daben zapatua helduko da. Barauskarriaren aurretik mezea egingo da goizeko 12:00etan. Arrastian herri kirolen txandea izango da: zaldia eta Harriti taldea harriari tiraka batetik eta ardi mozteak, trontzeak eta azkoreak osotuko daben desafiorea bestetik. 20:30ean odolostea jateko aukerea eukiko dau doanak. 21:00etan gau jantzia Adolfo eta Unaigaz, eta gero, gerokoak.

Abenduaren 3a izango da San Andresetako atzenengo eguna, 12:30ean trikiritixa eta txistuaren musikeagaz pintxo-potea egin eta errifearen zozketaren ostean amaituko dira Asterriko jaiak. Urteokaz bete ez bada be, baleiteke



aurten aitutea "San Andres nieve en los pies" gaztelarazko esakere zergatik esaten dan.

## KULTUR ETXEA

**Abenduaren 1ean inaugurauko dabe Arteako Kultur Etxea****Erredakzioa**

Arteako Kultur Etxea berrantolatu eta barriztu ostean, abenduaren 1ean arteztarrak zelan geratu dan ikusi eta inaugurazino ekitaldian parte hartzeako aukerea izango dabe. Mikel Markez abeslariak eta Arkaitz Estiballes bertsolariak ipiniko dabe jai giroa euren kantu eta bertsoen emonaldiakaz.

Arrastiko zazpietan izango da inaugurazino. Markez eta Esti-

balesen saioen ondoren, kopaua egingo da eta Kultur Etxeari bisitea.

**Premien arabera**

Kultur Etxearen berrantolaketea, 2016an Arteako Kultura dinamizetako parte hartze prozesuan arteztarrak definitutako kultureari erantzuna emoteko diseinatu zan. Parte hartze prozesu haretan bertan, Alex Carrascosaren gidaritzapean, egin zan orain gauzatu dan Kultur Etxeko proiektua. Kultura mota eta horretarako egoazan



preminak definitu ostean berrantolatu zan eraikina.



## MUSIKEA

# Arteako Azaro Musikalak jarraituko dau herri osoa musikaz bustiten



Sonic Free Station taldeak kontzertua emongo dau Batzokian.

### Erredakzinoa

Hilaren 10eko eta 11ko kontzertu interesgarrien ostean, Zezili Deunaren inguruan indartu egingo dau programazinoa Arteako Azaro Musikalak. Abesbatzen,

Niño Bravoren eta Sonic Free Station edo Tucson taldeen pop-rockaren txandea izango da hilaren bigarren hamabostaldian.

Herri osoan zehar entzun daiteke musikea zemendian Artean eta kontzertuak lekuri klau-

sikoenetan, zein alternatiboenetan izango dira: Parrokiako eleiza edo Musika eskolatik, Matadero-raino. Batzokian eta Ekomuseoan be kontzertuez gozatuteko aukerea egongo da.

Hile osoan zehar ludotekan musika tresnen tailerrak, mozo-roak, kalejirak eta musikeagaz lotutako beste jarduera batzuk egongo dira.

### Zemendiak 17, barikua

15:00etan, "Arteako eskolan musika ere bai" jardunaldi irekiak eskolan.

19:30ean, Luis Iruarizaga Abesbatza, Arratiako Musika Eskolea, Arteako eskolako umeak eta Arteako umeen kontzertua Andra Mari eleizan.

21:30ean, Sonic Free Station taldearen kontzertua Batzokian.

### Zemendiak 18, zapatua

19:00etan, Serigrafia tailerra Torontileren eskutik Mataderoan.

20:00etan, Niño Bravoren kontzertua Mataderoan.

### Zemendiak 24, barikua

18:00etan, Arratiako Musika Eskolearen eskutik kalejirea, kontzertua eta txokolatea Musika Eskolan.

### Zemendiak 25, zapatua

21:30ean, Tucson taldearen kontzertua Ekomuseoan.

## ANTZEZLANA

# Maitea ez dagoaneko abesti triste ederra eskeiniko dau Markeliñek

Markeliñe antzerki konpainiak, ikuskizun onenaren

2017ko Feten Saria jasotako *Euria* antzezlan

taularatuko dau zemendiaren 17an, arrastiko

18:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan.

### Erredakzinoa

Sei urtetik gorakoentzako ikuskizuna da *Euria*. Antzezlan honek, maite dogun baten bat ez dagoanean gertatzen jakunaren gainean egiten dau berba. Baita, zeozer aldatu behar dogula ulertuteko eta onartuteko behar dogun denpo-reen gainean be eta altxatzeko eta aurrera egiteko daukagun gaitasunaren metaforea be badago antzezlanean.

### Markeliñe

Markeliñek sano estilo personalagaz sortzean ditu bere ikuskizunak. Bizi garan mundu eta sasoiagazko konpromisoa erakusten daben istorioak sortzean ditu, momentuari eta oroimenari begirada kritikoa

emonaz.

Taldea Zugan Ni, gazteen artean arte eszenikoen zaletasuna bultzatzeko esgitasmoaz arduratzen da. Zugan Ni, ikasturtean zehar, Arratia eta Durangaldeko 13 eta 18 urte bitarteko gazteai eskeintzen jakien antzerkirako gunea da.



## DUNBA

# Egutegi mitologikoa (eta magikoa) egiten

### Dimako Ugarana eskolako 6. mailako ikasleak

Udagoiengan gagoz eta, urtero legez, Dimako eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak Gaztaina Eguna ospatu genduan urri bigarrenaren 26an.

Urtero argitaratzen dogu gure eskolako egutegia eta aurten, urtekerea aprobetxauz, gaztainak batzeaz gainera, gure eskolako egutegiko argazkiak egitea pentsau genduan. Egutegirako aukeratu dogun gaia mitologia danez, argazkiak egiteko... Baltzola inguruan baino hobeto non?

Eskolako talde bakotzak personaje mitologiko batez atera eban argazkia.

6. mailakooi, Abaro kobatik pa-seetan genbilela, Basajauna agertu jakun.

Basoaren sakonean edo leku garaietan dagozan haitzuloetan bizi da Basajauna. Personaje honen gizon handi eta izugarri ba-

ten itxurea dauka. Basoaren eta naturearen jagolea eta artaldean babeslea da, batez be.

5. mailakoak Kobahaundira hurreratu ziranean hara non ikusi eben Gizotso koba barruan lotan. Erdi otso erdi gizon itxurako munstro basatia da Gizotso. Izugarriko indarra dauka eta gauzez ateraten da, kate batzuk zintzilik daroazala.

Ixil-ixilik beragaz argazkia atera eta kobaren beste sarrerara hurreratu ginan. Han egoazan 4. mailakoak Jentilez inguratuta. Gizaseme basatiak, erraldioak eta indartsuak dira Jentilak. Harkaitz zati ikaragarriak urrunera botaten dabez, eta, hori dala-eta, leku askotan agertzen diran harrizarrak jentilari deitzean jakie.

Danok batera bidean egoazan gaztainak batzean, Jentilzubira heldu ginan eta han topau genduan 3. mailakoak jantzan eta kantuan, gure herriko Jentil famaduenak: Jentili eta Jentiltxu.

Eurakaz argazkia atera eta gero, hara non topau genduan 2. mailakoak Jentilkoba aurrean Basanderegaz berbetan. Personaje hau euskal mitologiako jenu bat da eta kobazuloen sarreratan ikusi daiteke.

Argazkia atera eta Basandereri agur esan ostean, Gibiltar base-rrirako bidea hartu genduan eta urrunetik ume talde bat ikusi genduan, lehenengoko mailakoak ziran eta eurekaz Behigorri egoan. Beragaz argazki polita egin eben. Behigorri Mariren etxea zaintzen dauan behi gorria da.

5 urtekoak, handik hur, Akerbeltzegaz atera eben argazkia. Aker baltz baten itxurako jenua da hau. Etxe-abereen jagole eta sor-

gin nahiz aztien buruzagia ei da.

Apurka-apurka Indusi auzorantza abiatu ginan eta hiru lamia ikusi genduan erreka ondoan, urrezko orraziakaz euren uleak orrazten. Euren inguruan, argazkia ateratzeko prest, 4 urteko ikasleak. Lamiak, andra eder baten itxurea daukie gorputzaren erditik gora, eta hankak oiloarenak, ahatearenak, zein ahuntzarenak modukoak daukiez. Haitzuloetan edo erreka putzuetan bizi ei dira.

Lamiai agur esan eta tanbolinetik etorren gaztaina usain gozoari jarraituz, San Fraisku ermita ondorantza hurreratu ginan, han bokata eta gorringoak jan ostean, eskaladan, olgetan, kantetan... pasau genduan denporea eta,



gura baino arinago, eskolara bueltetako ordua heldu jakun. Egun ederra pasau genduan benetan...

Hurrengo egunean Sugoi eta Iratxoak agertu jakuzan eskola inguruan, 2 eta 3 urteko umeakaz argazkiak aterateko prest. Sugoik suge itxurea dauka eta, suzko igitaiaren moduan zeharkatzen dau zerua. Iratxoak gauzez ateraten diran jenu bihurriak dira. Ez dira gaiztoak, baina bat-batean agertzen dira, eta ezusteko izugarriak emoten dabez.

Entzun dogunez, eskola ondoko landa inguruan Olentzero eta Mari Domingi eskolako langileak alkartuko dira eta zubi ondoan sorginak irakasleen zain ei dagoz, eurak be egutegian agertu gura dabe eta.

Laster eukiko dogu prest gure eskolako egutegia eta uste dogu interesgarria eta magikoa izango dala!





## AGENDEA

ZEMENDIAK 16  
BEDIA

16:30etik 19:30era, 24ra arte, esku pelota eta pala ikastaroa eta kirolarientzat egingo dan osasun azterketarako izen emotea liburategian.

## DIMA

18:30etik 20:30era, Mikromatxismoak identifiketan ikastaroa Abaro aretoan.

## IGORRE

Agustin Elexpe aguazil ohiaren omenaldirako bazkarirako txartelak salgai Gau Loran, AZ Rugby Tabernan eta Jubiladuenean hilaren 21era arte.

19:30ean, Bakegileak Parisen antolatuta daben abenduaren 9ko konzentrazinora joateko autobusak. Aurkezpena Kultur Etxean.

ZEMENDIAK 17  
ARRATIA

09:00etan, Bilbotik urten eta Zeanurirantz doan autobusean, Gurutze Gorriak jubiladuentzako antolatutako mendi ibilaldia. Zeanuri-San Lorenzo-Areatza-Zeanuri.

## AREATZA

22:15ean, Midnight Road taldearen kontzertua Bixer tabernan.

## ARTEA

15:00etan, "Arteko eskolan musika ere bai" jardunaldi irekiak eskolan; 19:30ean, Luis Iruarrizaga Abesbatza, Arratiako Musika Eskolea, Arteko eskolako umeak eta Arteko umeen kontzertua eleizan; 21:30ean, Sonic Free Station taldearen kontzertua Batzokian.

## BEDIA

Gabonetako Postalen Lehiaketan parte hartzeako lanak bialtzeko atzen eguna. Udalak antolatutako ikastaroetan plaza libreetan izena emoteko atzen eguna.

## DIMA

19:00etan, *Gerezi mingotsak* liburuaren aurkezpena eta Elena Fernandez egileagaz barriketaldia Abaro aretoan.

## IGORRE

18:00etan, Markeliñe antzerki taldearen *Euria* ikuskizuna Lasarte Aretan.

## LEMOA

16:30ean, Esku Pilota Taldeak antolatuta Pelotea Herriz Herri, frontoian; 19:00etan,

umeen pelota partiduak frontoian; 19:00etan, Txirindulari Elkarrekin antolatutako mahai-inguru "Neskak eta txirindularitza"; 19:00etan, SDK Hapkido Bizkaia antolatuta, Hapkido defentsa personalerako dobako eskolea kiroldegian; 20:30ean, Esku Pilota Taldeak antolatuta, Abel Barriolari alkarrizketa irekia Joseba Urkiolaren eskutik frontoian.

## ZEBERIO

17:15ean, Austarri Kultur taldeak antolatuta, Xilipurdi antzerki taldeak *Tarantela* lana antzeztuko dau plazako ermita zaharrean.

ZEMENDIAK 18  
AREATZA

20:00etan, Outsiders Duet The Quiet Corner-en.

## ARTEA

19:00etan, Serigrafia tailerra Torontilaren eskutik; 20:00etan, Niño Bravoren kontzertua. Mataderoan.

## DIMA

12:00etan, Ikurriñeari eta Taberna Barrii omenaldia Obako plazan. Agurra, opariak, abeslariak, bertsolariak, herri kirolak eta kopaua.

## IGORRE

IV. Rockupa Fest. 14:30ean, bertso bazkaria eta ondoren jokoak Gaztebexan; 21:00etan, Perlak taldea Axular Herriko Tabernan; 22:30ean, Storm taldea Kukuman, eta 24:00etan, Ksus Belly-ren kontzertua AZ Rugby Tabernan.

19:30ean, Luis Iruarrizaga Abesbatza, Arratiako Musika Eskolako ikasleak eta Igorreko Ludotekako umeen kontzertua. Zezili Deuna. Kultur Etxean.

22:00etan, zinea *Operación Concha* Lasarte Aretan.

## LEMOA

11:30ean, Kirlan-ek antolatuta, jantza modernoko

masterclass-a kiroldegiko kantxan; 16:30ean, Mendieta Herri Kirol Taldeak, HerriSport-ek eta Ongi Etorri Errefuxiatuak-ek antolatuta, errefujiaduen aldeko kuadrillen arteko herri kirol desafioa Atxeta plazan.

ZEMENDIAK 19  
ARANTZAZU

Arginatx Mendi Taldeak antolatutako mendi urtekerea. Santiagozar (Bedia).

## IGORRE

17:00etan, zinea *Gatos, un viaje de vuelta a casa*; 19:30ean, *Operación Concha* Lasarte Aretan.

## LEMOA

Lemoatx Trail. 08:00etan, marxa luzea; 09:00etan, marxa laburra; 10:00etan, lasterketa luzea; 11:00etan, lasterketa laburra.

## ZEBERIO

08:30ean, Austarri Mendi Taldeak antolatutako urtekerea: Ebagueñ-Oketa-Siskiña-Ubide (11 km. eta 400 m.ko desnibela). Ostein bazkaria Ubiden.

ZEMENDIAK 20  
BEDIA

17:00etatik 19:30era, hilaren 23ra arte, Andranakano Indarkeriaren kontrako Egunaren inguruko txapak egiteko tailerra. Ludotekan.

ZEMENDIAK 23  
ARTEA

19:30ean, EAJ-PNVk antolatuta, *Arratiarrakaz berbetan*. Ana Otadui, Izaskun Landaida eta Sara Gutierrez. Kultur Etxean.

## DIMA

18:30etik 20:30era, Mikromatxismoak identifiketan ikastaroa Abaro aretoan.

18:30ean, Rafa Ugaldere *Baltzolako ipuinak* liburuaren aurkezpena. Aitzol Atutxa azkolaria egongo da. Udal Liburutegian.

## IGORRE

Ines Bengoa Ipuin kontalaria. 18:00etan, 3-5 urte artekoentzat; 18:30ean, 6-8 urte artekoentzat.

18:00etatik 20:00etara, Arratiako Guraso Eskola, "Motibazioa sustatzeko teknikak: bizitzan eta eskolan" Kultur Etxean.

ZEMENDIAK 24  
ARTEA

18:00etan, Arratiako Musika Eskolearen eskutik kalejire, kontzertua eta txokolatea Musika Eskolan.

## BEDIA

18:30ean, umeentzako ipuin kontalaria Errezeta doktoarearen ipuinak liburutegian.

## DIMA

19:00etan, Alkarregaz Gure Eskuk antolatuta, "Zerk egiten gaitu herri?" mahai-inguru. Jon Maia, Helena Franco eta Ana Rodet eskoletan.

## IGORRE

18:30ean, Beldur Barik sari banaketea Kultur Etxean.

## ZEBERIO

18:30ean, Nerea Barjolaren Alcasarreko krimenen gaineko berbaldia; 20:30ean, *Volar* dokumentala udaletxeko 2. solairuan.

ZEMENDIAK 25  
ARANTZAZU

10:30ean, zumbatoi feministea plazan.

## AREATZA

Lamino Mendi Taldeak antolatuta, Salinillas de Buradon-Peña de las doce (1255 m.)-Toloño (1.277 m.)-San Gines eta upategia.

20:00etan, Rule of Trees The Quiet Corner-en. Arratiako Gurutze Gorriari babesa emoteko.

## ARTEA

21:30ean, Tucson-en kontzertua Ekomuseoan.

## DIMA

09:30etik 11:30era, Alkarregaz Gure Eskuk antolatuta mintegia Ana Rodetegaz; 14:30ean, herri bazkaria; bazkalostean, muskea, jantzak, diapositibak, argazkiak, Indusiko auzotarren antzerkia, bingoa eta kantu poteoa herriko tabernetatik zehar.

## IGORRE

Jubiladuen alkarteak antolatutako mendi ibilaldia. Aretoa-Arantzazu-Arandui-San Migel Txiki-Santuru-Dimako ortu santua-Iturran-Aretoa.

12:00etan, manifestazioa "Feminizidioaren

kontra, autodefentsa feminista" Kultur Etxetik hasita. Ondoren poteoa; 19:30ean, *Volar* dokumentalaren proiektzioa Lasarte Aretan.

Agustin Elexperi omenaldia. 13:00etan, trikitilarien kalejire; 14:30ean, herri bazkaria.

## LEMOA

18:00etan, herria morez apaindu, Gaztelekutik abiatuta.

ZEMENDIAK 26  
IGORRE

17:00etan, zinea *Amarillito*; 19:30ean, *La llamada* Lasarte Aretan.

## LEMOA

Ganzabalek antolatuta, Uribarri Ganboa-Otxandio, ardoa eta arrainaren ibilbidearen 6. etapa.

## ZEANURI

Jubiladuen egunerako bazkarirako izena emoteko atzen eguna. Jubiladuen tabernan.

## ZEBERIO

10:00etan, bertoko produktuen XIX. Azoka. Plazan.

ZEMENDIAK 27  
IGORRE

18:00etan, Nokak, Igitiek eta Ongi Etorri Errefuxiatuak-ek antolatuta, Lolita Chavezen berbaldia Kultur Etxean.

## LEMOA

19:00etan, Olentzero antolatutako batzarra udaletxean.

## ZEANURI

18:30ean, "Bardintasuna: garapenerako giltza. Andra eta gizonen bardintasunerako erronkak". Udaletxeko pleno gelan.

ZEMENDIAK 29  
AREATZA

19:00etan, aurrekontu parte hartzaileen batzar zabala. Udaletxeko Aretu Nagusian.

## ZEANURI

Jubiladuen Eguna. 13:00etan, mezea San Isidro eleizan; 14:15ean, bazkaria jubiladuen tabernan.

ZEMENDIAK 30  
ARTEA

19:00etan, "Arteaztarron biltzarra" herri asanblada orokorra. Kultur Etxean.

## DIMA

18:30etik 20:30era, Mikromatxismoak identifiketan ikastaroa Abaro aretoan.

Euskaldunen herrian barrena,  
hamar serigrafia ikusgai IKEn

Wilhelm von Humboldt-ek (1767-1835) egindako biajean oinarritutako hamar serigrafia egongo dira ikusgai Igorreko Erakusketa Aretan zemen-diaren 27tik 2018ko urtailaren 5era arte. Serigrafiok, Pablo Donezar, Iñaki Imaz, Gema Intxausti, Diego Machimbarrena, Peio Mitxelena eta Idoia Monton artistak egindakoak dira.

Humboldt hizkuntzalari eta politikari prusiarrak 1801ean egin eban bere biajea euskaldunen herrian zehar, eta famau egin zan liburu baten jaso ebazan euskerea eta euskaldunen gaineko bere inpresinoak.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## EGURRA SALTZEAN DA

Pago egurra saltzean da sua egiteko. 45€/tona. Gura izan ezker neurri zatituteko aukerea dago. Informazio gehiago 688 602 516 telefonon.

## DANERIK

## LAN ESKEINTZA

Lan eroso eta ondo ordaindutakoa eskeintzen dogu. Telekomunikazio enpresa baten, autonomo edo kolaboratzaileen bila gabiz, ordutegi barik eta komisino handiak pagauta. Deitu 662 568 707 telefonon.

## GARAJEA BEHAR DOT

Karabanea iteko garajea behar dot Arratian. 7 metroko luzeerea eta 2,60 m.ko altuerea. Deitu 675 712 841 telefonon.

## TRUKEA

Arratian (Areatza) bizi dan neska alemaniar/danimarkarrak beragaz ingelesez edo alemanieraz praktiketako aukerea eskeintzen dau, gartzelania

praktiketea aukerearen truke. Interesdunak 634 445 924 (Sophie) telefonora deitu.

## GARAJE PARTZELA ALOKAIRUAN

Zeanurin, Ibarretan garaje partzela bat alokatzen da. Interesdunak deitu 94 673 92 96 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com-era](mailto:begitu@topagunea.com-era). Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:


**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Markeliñeren *Euria* antzezlenerako.

Marina Urigoitia (Artea)  
Yolanda Martin (Zeanuri)



**2** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Operacion Concha* filmarako.

Josu Markina (Igorre)  
Juan Totorika (Areatza)



**3** Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 15 urte eta ehundaka lagun.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Urri lehenengoa. 2.- Letra bat.  
Abizen bat. Boroa. 3.- Sanskritoko silaba  
sagradua. Hodi. 4.- Karrika. Iridioa.  
5.- Gehitu. 6.- Persona izenordaina.  
Azpikogona. 7.- Guztia. Emea ez  
dana. 8.- Bokala. Gorputz atal bat.  
Konsonantea. 9.- Susara.

### GOITIK BEHERA

1.- Asentsio. 2.- Letra bat. Naturaz  
gandiko gauzak egitea. Bokala.  
3.- Oinazea adierazoten dau. Musika  
nota. Galdetzailea. 4.- Belaunpe.  
5.- Bi gehi bi. Gitxi falta. Sodioa.  
6.- Bokala. Bularra. Konsonantea.  
7.- Azkar, zuhur.



Topau euren amaieran zenbaki bat daukien zazpi berba.

E	H	U	N	K	A	T	O	L	I
G	E	L	A	U	T	E	G	E	M
I	R	R	U	K	A	B	A	R	E
K	R	I	A	O	S	T	A	B	E
U	M	E	R	B	O	Z	T	I	L
M	E	R	A	B	A	T	T	X	O
E	S	T	O	L	A	T	A	U	Z
B	E	K	I	L	A	N	B	E	R
A	G	A	R	B	I	Z	N	O	U
P	I	R	U	L	A	B	I	K	O
O	S	A	B	A	A	J	A	U	R
P	E	B	A	T	X	U	H	A	N
I	K	I	L	I	M	I	L	I	A
M	A	K	I	L	L	A	U	T	O
A	S	T	A	P	O	L	A	U	N

# AKMIKO

Kailoren



umean moda  
**seim**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnua: 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK  
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

**AKEITEGIA**  
**GAY & LORA**  
IGORRE

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnua 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
KOSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
TLF. 94 631 92 00

**GARANTXE Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ  
ZEIN ERDARAZ  
Lehendakari Agirre 31  
Tfnua: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@euskalnet.net

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK:  
AUTOAK  
ETXEBIZITZAK  
DENDAK  
ISTRIPUAK  
BIZITZA...  
ABOKATUAK:  
ZUZ. ZIBILA  
KONTSUMO ZUZ.  
ADMINISTRAZIO ZUZ.  
INGURUGIRO ZUZ.  
AHOLKULARITZA:  
LAN ZUZENBIDEA  
ZERGAK  
KONTABILITATEA  
Tfn. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
94-673-70-87  
609-79-40-54

**Orre**  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA  
L. Agirre, 2.  
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnua: 94 673 61 25

Pinturas Aratia  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta euskaraz zein erdaraz  
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83  
e-posta: vnozulu@euskalnet.net



## MIKEL OTXOTORENA FERNANDEZ

**"Inori ez jako gustetan bere pribilegioak galtzea, baina justizia kontu bat da"**

Mikel Otxotorena Fernandez hernaniarra da.

Soziologia ikasketak egin ostean Nazinoarteko

Lankidetzan eta Bardintasunaren inguruko masterrak egin ebazan. Harrezkerotik bere ibilbide profesionala eta militantea arlo bi horreetatik joan da.

Hamabost bat urte dira buru-belarri sartu zala

bardintasun gaietan eta, batez be, gizonak eta

bardintasuna eta maskulinidadeen gaiak landuten dauz.

Zemendiaren 8an, Igorren, kirolaren munduan

gizon eta andren arteko bardintasuna landuteko

tailerra emon eban Otxotorenak.

## Erredakzioa

**Kirola eta bardintasunaren gaineko tailerra emongo dozu gaur hemen Arratian.**

Bai. Gizonduzetik eskatu eusten. Maiatzean be saiatu ginan baina ez zan talderik atera. Ardatza bardintasuna eta kirol mundua izango da, gizonon ikuspegitik. Maskulinidadearen gaia landuko dogu, kirola ardatz hartuta.

Kirola eta bardintasuna ondo ulertuteko, ezinbestekoa iruditzen jata jorratzea zelan ikasten dogun gizon edo andra izaten. Zelan barneratzen doguzan rolak eta estereotipoak eta zelan sartzean doguzan geure egunerokotasunean. Holan hobeto ulertuko doguz gero kirol munduan emoten diran desbardintasunak.

**Arratiarrak oso kirol zaleak dira baina oso jente gitxi apuntau da tailer honetara. Lemoako kiroldegiko eta aisialdi talde bateko ordezkariak eta norbanako batzuk. Ez mendi talderik, ez futbol talderik, ez pelota eskolarik, ez txirindularitza talderik, ez herri kiroleko talderik...**

Zoritxarrez ohikoa da hori. Gai honek ez ditu jentetzak mobiduten. Normalean lehendik sensibilizazio apur bat daukienak hurreratzen dira. Gaxena izaten da populazioaren gehiengora ailegetea. Hor esfortzu bat eginen jarraitu beharko dogu, bardintasunaren mezuagaz, normalean gai honeetatik iges egiten dauan jentearengana heltzeako.

**Generoa oso presente dago kirol munduan eta gizon eta andra kirolarien arteko desbardintasuna itzela da. Eskolaz kanpoko jardueretan be, emoten dau kulturea, musikea eta jantzak nesken kontuak dirala, kirola barriz mutilena; batez be futbola eta pelotea.**

Nik uste dot apurka-apurka aldaketak gertatzen dabizala, baina aldaketak astiro doaz eta kirol munduan oindino astiroago. Argazki bat aterako bageunke ikusiko geunke bardintasunari jagokonean balantza guztiz desorekatuta dagoala kirol munduan. Eta argi ikusten da mutilak kirol batzuk egitera jotzen dabela orokorrean eta neskek beste kirol batzuetara. Oindino hor gagoz.

Emoten dau 2017. urtean egoteak suposatuko leukela aurrerapausu dezente emon izana, eta ikusten dogu gai batzuetan aurrerapausuak sano urriak izan dirala.

Dana dala, pausu txikiak emoten dira eskoletan eta esfortzua egiten dabe kirol batzuetara neskek konbidatuteko eta alderantziz. Normalean, erantzun positiboagoa izaten da nesken aldetik: neskek parte hartzean dabe oin arte kirol maskulinizatuetan, baina kontrakoa bidea ez da emoten. Hau da, mutilai gehiago kostetan jakie kirol feminizatuetan parte hartzea.

Lan esparrura jotzen badogu beste horrenbeste gertatzen da. Atzenean kirolean gertatzen dana da gizartean gertatzen danaren islada. Kirola ez da mundu aparte bat eta kirolean gertatzen dana kulturaren gertatzen da, politikan gertatzen da, lan esparruan gertatzen da... Kirola beste esparru bat da non agerian geratzen dan bardintasun eza.

**Baina kirol munduan, gizartean zorionez permitidu ez diran gauzak permitiduten dira. Esate baterako, jokariak kontratu esan beharrean erosi esaten dabe eta beste gauza asko, bardintasunaren arloan, beste inon onartzen ez diranak.**

Bai. Bardintasun ikuspegitik egiten badogu analisisa, muturreko desorekan dago kirola, balantza sano desorekatuta dago.

Burura jatorra, esaterako, Kontxako Bandera Saria bardina izango dala datorren urtean gizonetako eta andrazkoentzat. Eta holango neurriak oso errezak dira hartzean, udalak ezarri daikiez-eta.

**Eta hori egiten dabenean konturatuten gara ordura arte sariak ez dirala bardinak izan! Futbol profesionaleko lehenengo mailan, bardin kobrauko balebe gizonetakoak eta andrazkoak jarraituko leukie jokariak gaur egun diran heroi edo eredu izaten? Hain**

*"Danimarkan futbol selekzinoko gizonak soldatak jeitsi ditue andrenakaz parekatzeko"*

**fama handia eukiten?**

Zoritxarrez ezetz uste dot. Ikusi dogu gure gizartean beste gai batzuk zer gertatu dan-eta. Adibide bi ipiniko dodaz.

Bata da sukaldaritza mundua. Hori andrak eukien lan esparru bat izan da, arlo pribaduan egin izan dana eta bat-batean publikora atera danean, andrak desagertu egin dira, balorea hartu dau sukaldaritza eta oin galdetuko bageunskio nonori Michelin izarrak jasotako zenbat andra ezetuten dauzan, ba baten batek akaso bat esango leuke; gizonetakoetara joko bagendu barriz, zerrenda luzeagoa aterako litzateke.

Horixe bera gertatu da jostunakaz. Andren lan esparrua izan da baina arlo pribaduan. Barriz be kalera atera da eta balorea hartu dau gizonetakoak egiten dabelako. Eta fama gizonetakoak daukie.

Ba zoritxarrez pentsetan dot kirolean horrelako zerbaist gertatzeko aukerak dagozala. Egia da eta esperantza apur bat emoten deusta, pausu txikiak emoten gabizala eta akaso pausu horreek hori ekiditeko balio ahal izango dabela. Garrantzitsua da emoten diran pausuak klabe horretan pentsatzea, bardintasun klabean. Futbol munduan, esate baterako, zelan landu andrak izan daikien fama, gizonenaren antzekoa edo bardina izateko? Beste aukera bat da gizonen fama gitxitzea, danak aukera bardinak izateko.

**Gizonak egongo liriteke pribilegio horrek galtzeko prest? Erresistentziak egongo dira.**

Beinke! Inori ez jako gustetan bere pribilegioak galtzea, baina nik uste dot justizia kontu bat dala. Gizonon erronka handia daukagu hor, zeintzuk diran gure pribilegioak ikusi, lanketa bat egin, eta gero ebatzi zer egin pribilegio horreekaz.

Danimarkan futbol selekzinoko gizonetakoak, beren soldatak jeitsi ditue andrazkoen soldatakaz parekatzeko. Badirudi jokariaren aldetik ateratako iniziatibea izan dala. Ondo etorria, baina kontuz! Hor erakunde bat dago, Danimarkako selekzioa hain zuzen be, ebatzi hori hartu ez dauana.

**Zemendian gagozanez, zein da zure ustez gizonen papela indarkeria sexistaren kontrako burrukan? Gizartean andrazkoen arazo eta erantzukizuna balitz legez dago planteautu.**



Jose Saramago idazlea zanak inoan indarkeriaren asuntua gizonok daukagun arazo bat dala, andrak sufriduten dabena. Orain dala 12-13 bat urte egindako alkarrizketa baten esan eban. Alkarrizketa ha kablea izan zan, berba gitxitan gauza asko esan ebazalako.

Nik uste dot hasi behar dogula hausten idea faltsu hori non badirudian indarkeria andren asunto bat dala eta andrak konpondu behar dabela. Indarkeria martxan ipinten dabenak gizonak dira eta hortik heldu behar deusagu. Ezpabere, beti ondorioen inguruan egingo dogu lanketea. Beharrezkoa da hori be. Kontuz! Indarkeria jasaten daben personon ondoan egon behar da, zeozelango jasotze bat emoten. Baina ez bagoaz zuztarrera... Gizonen jokaeretan ez bagoaz, orduan ondorioetan lanean ibiliko gara indarkeriaren zuztarrak ikutu barik.

Gizonen posizionamentua oso firma izan behar da indarkeria sexistaren kontra. Uste dot Euskal Herri mailan aldaketea emoten hasi dala, apurka-apurka. Lehengo urtean adibidez sanferminetan izandako bortxaketearen ondorioz udaletzeko plazea goraino beteta ikustea, txupinazo egunean legez, eta gizonen presentzia nabaria izateak, ba horrek, niiri esperantza emoten deusta. Oin dala 15 urte, ez zan holango posizionamentu sozialik egoten bortxaketen aurrean.

Gizartean badoa sensibilizazioa sartzean edo garatzen. Hortik jo behar dogu baina gizonok ardurak hartu behar doguz. Justizia kontu bat dalako.

Epe luzerako lana da, konstantzia, konzientziarria, sensibilizazioa eta konpromisoa behar dira indarkeria mota hau desagertu daiten.

**ZURE ZERBITZURA**

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre  
www.aviaenergias.es

**GURE BIHOTZA**

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan